

# Arrasate

P R E S S

1998ko  
Otsailak 20  
396. zenb.

## Hizkuntzak ikasten buru belarri

Exekutiboak nazioartera begira

IKUSPEGIA: JESUS LARRAÑAGA • KULTURA: LAS VENENO  
IRITZIA: ARRATE LANDA • 30 GALDERATAN: ARANTXA EGOSKOZABAL



**ALMEN**

**SAN FRANTZISKO  
XABIER**

**SAN VIATOR**

**UMEZAINZA**

Hezibide bailarari hezkuntz egitura kooperatibo aberatsa ematen dion elkartea, gure eskeintza azaldu nahi dugu.

Deba Garaian haur hezkuntzatik unibertsitate mailarainoko eskaintza integrala, propioa eta zabala ematen dakiten zentroak.



# Deba Garaian etorkizuna eraikitzen



HEZIBIDE



PARTAIDE  
Ikastolak

- zuk eraiki duzun eskola: ikastola.
- guraso, langile eta erakudeen partaidetza.
- etengabeko hobekuntzako konpromezua.
- autonomia: beharrei erantzuteko gaitasun osoa.

**MATRIKULA** otsailaren 26tik martxoaren 11ra **ZABALIK**

# zatoz ezagutzera



# Lana jakintzaren aroan

**M**endebaldeko gizartea kezkatuta dago, pentsatzen baitu langabeziari buruz ekonomia-zerumugan joan doan laino bat baino gehiago dela; jakintzaren aroan "ikusten" den egiturazko errealitatea da langabezia. Autore askok gogor eta zuzenean diote bukatu dela oinarritzko eta kateamenduzko lana, eta haren ordeztu automatizazioa eta jakintza teknologikoaren aplikazioa datozela.



Jesus Larrañaga

Gerora begira ikusten dute iraultza datorrela fabriketan eta negozio alorrean oro har, hemendik 15-20 urtera, automatizazio-informazioa bikoteak bazterrean utziko dituela maila baxua duten langileak.

Esaten dute irtenbidea izan daitekeela lanorduak murriztea, lan gutxiago egin pertsona gehiagok lan egiteko.

Baina ez da nahikoa izango orduak besterik gabe murriztea, besteak beste, ekonomia globalari eragiten dion

iraultza delako eta ez dio munduaren arlo bati bakarrik eragiten, gertatu zen bezala bapore eta elektrizitatearen arloekin, batez ere, mendebaldeko munduari eragin zioten eta. Balio erantsi baxuko produktueta gora egin duten herrialdeen gaitasun potentziala oso handia da, eta batez ere, bi eremutan dihardute:

1.- Munduan berdintzeko joera hartu duten soldadak, txikiaren prezioaren edo parekideen prezioaren mailan; nolako lana halako prezioa.

2.- Eginkizun arruntan lan-balioa hondatzen doan neurrian, klase profesional eta teknikoaren zoria hobetu egiten da neurriz kanpo, historian zehar inoiz lortu ez duen ongizatea lortu arte.

Gainera datorkiguna arduratzeko modukoa da, garapen kapitalistaren ereduak bultzaturik, une honetan indarrean dagoen bakarra baita. Jakintzen grabitatearen ondorioz eta kapitalismoaren berregituratze zorrotzaren ondorioz,

kapital eta lan kualifikatua erabiltzeko joera duena, indarrez ezartzen diguten zoer da.

Eta horren aurrean, gure herria moduko herri trebatuak prestatu egin behar dira kompetibitatearen eremuan jokatzeko. Hartarako, enpresak eta instituzioak prestatu behar dira kapitalismoaren eboluzioaren fenomenoaren aurrean eta gomendatu beharra dago balio erantsi handiagoko jarduerak egitera jo behar dugula. Izan ere, hortxe ditugu industria, unibertsitatea eta instituzioak teoriarik komunitatea bultzatzeko negozio eta jarduera berriak bilatzeko, jakintza izan dezagun lehia datorrenarako. Guk geuk egiten ez badugu beste batzuk egingo dute. Baina gure buruaz beste egingo genuke aurrea hartuko ez bagenu, aurrera egiteko baliabide bikainak ditugu eta. Gustatuko litzaieke beste komunitate batzuei gurean ditugunak izatea.

Azken finean, kolektibo sozial moduan, lehiaketa eremu horretan hezkuntza eta entrenamenduaren aukerak erabiltzen dituen teknologia eremuan leku bat aurkitzea izango litzateke hori guztia, osabide eta sendabide moduan lanjarduna murrizteko mirariaren zain egon gabe. ■

**“Ez da nahikoa izango orduak besterik gabe murriztea”**

**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS  
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Oialora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40  
E-mail: arrasatepress@readyssoft.es

**Laguntzaileak:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Ibaro Zubillaga, Marian Porcel, Patxi Montero. **Publikatzaia:** Kaitlin Allende, Nerea Zallo (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikeme Altube (Tel.: 79 02 26) **Diselina:** Golo Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Maria del Campo, Iban del Campo, Ibaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreumela, Juan Luis Azkarate, Altor Orobenagoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saia, ASA taldea, Enako Allende, Besaide M. E., Karmelo Urbarren, Bixente Pagoga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agornia, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karnele Perez, Kopti, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barreña. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28).  
©ARRASATE PRESS. Tirada: 6.300. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua.  
**Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain hartzen aldirizkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.

**ARRASATE PRESS** paper birziklatuan egiten da.

**Azaleko argazkia:** Ignacio Perez.

## 396. zenbaki honetan

1998ko otsailaren 20an

Asteko agenda.....	<b>4/5</b>	Orain eta hemen.....	<b>13/15</b>	30 galderatan.....	<b>30</b>
Irakurlea idazle.....	<b>6</b>	Txutxumutxuak.....	<b>16/17</b>	Kulturaren txokoa.....	<b>35</b>
Inkesta.....	<b>7</b>	Asteko gaia.....	<b>19/21</b>	Denborapasak.....	<b>36</b>
Euren ikuspuntutik.....	<b>11</b>	Kirolak jokoan.....	<b>22/25</b>	Ikusi eta entzun.....	<b>37</b>
Astearren erreposoa.....	<b>12</b>	Azoka plaza.....	<b>28/29</b>	Fotozaharra.....	<b>38</b>

*Ikuspegia*  
**Jesus Larrañaga.....3**

*Euren ikuspegitik*  
**Arrate Landa.....8**

*Aurrez aurre*  
**Isabel Ramos.....26/27**

*Kulturaren txokoa*  
**Las Veneno.....29**

*Asteko gaia*  
**Hizkuntzak ikasten buru belarri.....19/21**

**Exekutiboek hizkuntzak ikasteko premia dute.**



# 20

ostirala

■ ZINEA

*Se lo que hicisteis el último verano.* Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 21:30etan.

■ HARATUZTEETAKO EMANALDIA

Arrasate Musikalen *Inauterietako Emanaldia* entzun ahal izango da Amaia antzokian, arratsaldeko 18:30etan.

■ GAZTETXEAN EMANALDIA

*Señor No* eta *Snobs* (lehenago *Why not!*) taldeek emanaldia eskainiko dute Arrasateko Gaztetxean, gaueko 21:00etan.

# 21

larunbata

■ ZINEA

*Mowgli y Baloo.* Alai zineman arratsaldeko 17:00etan. *Se lo que hicisteis el último verano.* Arratsaldeko 19:00etan eta 22:00etan.

■ HARATUZTEETAKO EKITALDIAK AL ANDALUSEN

Arratsaldeko 19:30etan, *Chirigotas* taldearen emanaldia. Gaueko 23:00etan, *Playback* jaialdia, egoitzan bertan.

■ ANTZERKIA AMAIA ANTZOKIAN

*Las Veneno* taldeak, *¿Que Fue de las Hermanas Sue?* antzezlan eskainiko du Amaia antzokian, gaueko 22:30etan.

■ ANTZERKIA ARETXABALETAN

Karra Elejalde aktorearen *La cabra tira al monte* antzezlan Aretxabaletako Zاراia zineman, gaueko 22:30etan.

# 22

igandea

■ ZINEA

*Mowgli y Baloo.* Alai zineman, arratsaldeko 17:00etan. *Se lo que hicisteis el último verano.* Arratsaldeko 19:00etan eta 22:00etan.

■ HARATUZTE IGANDEA

*Eguzki* taldearekin dantzaldia, Herriko plazan arratsaldeko 19:00etan hasita.

# 24

asteartea

■ ZINEA

*Se lo que hicisteis el último verano.* Alai zineman, 19:00etan eta 21:30etan.

■ HARATUZTEAK

Arratsaldeko 17:00etan *Txoronpio, Pantxi eta Pantxo* pailazoaren emanaldia. 17:15etan *Samakisu* fanfarrea. 18:00etan *Auskalo* taldearekin kalejira. 19:00etan Erraldioiak eta kilikiak. 20:00etan dantzaldia *Haitzama*rekin eta 23:30etan sardinaren hilketak.

# 23

astelehena

■ ZINEA

*Se lo que hicisteis el último verano.* Arratsaldeko 19:00etan eta 21:30etan.

# 26

osteguna

■ ZINE KLUBA

*El profundo Carmesi.*

**MUXIBAR PIZZERIA**  
79 11 25  
**ADI!!!**  
otsailak 9tik aurrera...  
**ORDUTEGI BERRIA**  
arratsaldeko 6etatik aurrera  
**ZABALIK egunero!**

**HARATUZTE EGUNA ONDO PASATZEKO...**  
ederra  
arrasate  
Iturriotz, 12 • ARRASATE



Amaian, gaueko 21:30etan.  
Sarrera: 400 pta.

■ **SAN VIATOR  
IKASTOLAREN BATZAR  
OROKORRA**

San Viator ikastolaren Batzar Orokorra Arrasate Pasealekuko 10. zenbakian. Lehen deialdia 18:15etan eta bigarrena 18:30etan.

■ **SAN FRANTZISKO  
XABIER IKASTOLAN  
HITZALDIA**

Gaia: *Etxetik ikastolara ondo ezagutzeak konfiantza ematen du.* Arratsaldeko 18:00etan, Olarteko ikastolan.

■ **HITZALDIA**

Aita Menni Ospitalak, Uribe Auzoan duen *Eguneko Zentru Psikogeriatrikoari* buruzko hitzaldia antolatu du. Arratsaldeko 18:30etan Monterronen.

■ **EAren EZHOIKO HIRI  
BILTZARRA**

Arrasateko Eusko Alkartasunaren, ezohiko Hiri Biltzarra, Alkartetxean, arratsaldeko 19:00etan.

■ **BEDOÑAKO  
HERRITARREN OHARRA**

Martxoaren 15ean Bedoñan jaiotakoek bazkaria izango dute Errastikua jatetxean. Auzoan jaiotako edonor joan daiteke bazkarira. **Eguerdiko 12:00etan** meza izango dute eta ondoren, bazkaria. Izen ematea Errastikua jatetxean egin behar da (79 10 13)

■ **EUSKAL DANTZEN  
IKASTAROA**

Lore Gazteak Dantza Taldeak, Euskal Dantzen ikastaroa emango du San Joanak arte. Saioak asteazkenetan izango dira, arratsaldeko 18:30etatik 19:30ak arte. Ikastaroa hasita egon arren, izena emateko epea oraindik zabalik dago. Horretarako Gazte Bulegora jo. Prezioa: 1.000 pezeta.

■ **34ko KINTOEN  
BAZKARIA**

Martxoaren 7an 1934an jaiotako kintoen bazkaria egingo da.

Eguerdiko ordubatean, meza frantziskotarren elizan. 14:30etan bazkaria Udalpe elkartearen. Prezioa: 2.000 pezeta. Izen ematea Bengoa tabernan egin behar da, martxoaren 4a baino lehen.

■ **ARETXABALETAKO  
TRIL EMAKUME TALDEA**

Tril Emakume Taldeak Saloi Dantza ikastaroa antolatu du. Ikastaroa martxoaren 3an hasiko da eta saioak asteartero izango dira, arratsaldeko 19:30etatik 21:00ak arte, Aretxabaletako Kurtzebarri eskolan. Irakaslea: Natalio Maiztegi. Prezioa: 2.500 pezeta. Berri gehiagorako, Loramendi elkartera jo (77 09 70).

■ **HARATUZTEAK 98  
ARGAZKI RALLYA**

Gaia: *Arrasateko Haratuzteak 1998.* Otsailaren 20an eta 21ean. Karreteak denda laguntzaileetan (Ikatz, Epelde eta Oain) jaso ahal izango dira. Karreteak,

otsailaren 25ean, asteazkena, entregatu beharko da jasotako dendetan. Sariak: bilduma onenari 25.000 pezeta. Argazki onenari: 15.000 pezeta. Bigarren bilduma onenari 10.000 pezeta.

■ **UDAL ZERGEN  
ORDAINKETA**

Udal zergak ordaintzeko eskaerak egiteko epea apirilaren 8ra arte zabalik egongo da. Eskaerak Arrasateko Udaleko Gizarte Zerbitzuetan bete behar dira. Txanda alde zurretik eskatu behar da, 79 09 00 telefonoan.

■ **ARTE MARTZIALEN  
IKASTAROA**

Arrasateko Tai Chi Elkarteak, Tai Chi, Chi Kung, Yoga eta Meditazio ikastaroa antolatu du martxoaren 6tik 8ra bitarterako. Ikastaroa Zestoako Sastarrain baserrian izango da. Irakaslea: Valentin Zurbano. Izena emateko azken eguna, otsailaren 27a. (71 41 91)

 **MARKO-JARTZEAK  
ALDEDI**  
Biteri, 8 • ARRASATE  
Tel.: 79 13 05 • Faxa: 79 13 84

*Sili Sili*  
**Martxa eta estilo  
handiko arropa**  
Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 79 81 82

**Lore**  
*Lurrindegia*  
Olarte kalea, 10 • ARRASATE  
Tel.: 79 52 50

**DISCO-BAR**  
  
**Gogoratu astegunetan  
14:00etan eta jaiegunetan  
17:00etan zabaltzen dugula!**  
Zarugalde, 17 behea • ARRASATE  
Tel.: 79 20 29



**GUARDIAKO FARMAZIAK**

- Ostirala 20**  
• Gaeuz: Amezua, Santamaina.
- Larunbata 21**  
• Gaeuz: Zabala, Zarugalde.
- Igandea 22**  
• Gaeuz: Ruiz, Maala.
- Astelehena 23**  
• Gaeuz: Morales, San Andres.
- Asteartea 24**  
• Gaeuz: Azkoaga, Ferrerias.
- Asteazkena 25**  
• Gaeuz: Español, Iturriotz.
- Osteguna 26**  
• Gaeuz: Corcuera, Musakola.

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

- Eritetxeak**  
Arrasateko Eskualde-Ospit. . . 79 53 00  
Iguatorialdea . . . 79 05 00  
Santa Agedako Ospitalea (gizonak) . . . 79 39 00  
(emakumeak) . . . 79 44 11  
Buru osasunerako zentrua . . . 79 90 11
- Gurutze Gorria**  
Bergara . . . 76 55 76
- DYA**  
Antzuola . . . 78 71 57
- Anbulatorioak**  
Arrasate (Larrialdiak) . . . 79 13 57  
• Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria . . . 77 03 46  
• Espezialitateak . . . 77 05 78  
77 12 64  
Oñati . . . 78 08 52  
Eskoriatza . . . 79 98 58  
Aretxabaleta . . . 79 74 58  
Aramaio . . . (945) 45 51 16
- Anbulantziak**  
Gipuzkoako ambulanziaz . . . 45 87 44
- Udalzainak**  
Oñati . . . 78 04 11  
Bergara . . . 76 14 69  
Arrasate . . . 79 14 39  
Aretxabaleta . . . 79 10 52  
Eskoriatza . . . 088
- Ertzaintza**  
Arrasate . . . 79 71 99
- Suhiltzaileak**  
Udal taldea . . . 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaile burua . . . 79 20 72  
Zubillagako Eskualde-Parkea . . . 088
- Matxurak**  
Urak (udal zerbitzua) . . . 79 09 00  
Argindarra (liberduero) . . . 12 01 62  
Gasa . . . 900 40 05 23  
79 78 44  
79 76 78
- Garraioak**  
Taxiak . . . 79 12 22  
PESA . . . 902 10 12 10
- Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
Iturbide Egoitza . . . 79 72 11  
Abaroa jubilatuen egoitza . . . 79 81 57
- Kontsumitzailearentzako informazioa**  
KIUB-OMIC . . . 79 51 55
- Monterron liburutegia**  
Monterron . . . 77 01 05
- Irratia**  
Arrasate Irratia . . . 79 58 77

**ERTZAIN MOZORROTUEN INDARKERIA BIONA TABERNAN**

Otsaileko 14aren goizaldeko ordubata t'erdian, sei ertzain mozorroturik eta istiluetarako materiala zekartela, Arrasateko Biona tabernan sartu ziren, indarkeria erabiliz. Beste batzuek kanpoan geratu ziren aurrekoei babesa emateko. Taberna gaztez beterik zegoela, ertzainek haietako bi atxilotu eta indarkeria erabiliz kanpora atera zituzten. Ondoren, identifikatu eta arakatu egin zituzten, modu txarrean beti. Hori guztia harrokeria, inpunitatea eta nagusikeria giro jasanezinean, tentsio handiko egoera sortuz. Bien bitartean, hiru ertzainek oztopatu egin zuten tabernako irteera. Han ziren gazteak Ertzaintzaren ekintza honen lekuko izan ziren.

Ertzainek muzin egin zieten egoera azaltzeko tabernako langileek eta bezeroek egindako eskaerei. Ez zuten bat ere errespeturik erakutsi jendearekin. Aitzitik, askatasunarekiko eta oinarriko eskubide demokratikoekiko mespretxua azaldu zuten.

*Biona tabernako langileak, hantxe zeuden 15 pertsonen sinadura eta Jai-Zale, Irati, Iluntz, Lagunilla, Iturriotz, Ekaitz eta Zuk-Nahi tabernak.*

**HIRUTARIKO GOBERNUAREN XENOFOBIA ARRASATEN!**

Konponbide zaileko arazokak agertzen direnean eman behar den erantzuna pentsatu, ondo aztertu eta praktikan jarri behar da, ahal bada behintzat. Hau borondatea dagoeanean, noski!

Ez da hori hirutariko gobernuak egin duena ospitalaren ondoan dauden ijito familiekin. Arazo bat dago, txabolak, zikinkeria... zerbait egitea pentsatu eta aurrera egin du. Aztertzearena eta borondate onarena handi gelditzen zaie hirutariko politikoei.

Txabolak ilegalak ziren, jakina. Arrasaten dauden beste asko bezala. Ijitoenek, berriz, diferentzia nabarmena zeukaten gainerako txabolekin: haienak bizitzeko aterpeak ziren, besteak ortugintzarako, lanabesak edukitzeko edo txakurrak gordetzeko erabiltzen diren bitartean.

Ijitoenekin udalak akordio bat hartu zuen Hirigintza batzordean: Ongizate Sailak irtenbide bat eman ziezaiela ijito familiei txabolak bota aurretik. Baina hirutarikoak ez zuen akordioa errespetatu eta gaia Ongizate batzordean aztertu aurretik, bota egin zituen ijitoen txabolak. Gogoratu familia hauetan badirela adin txikiko umeak. Hura zen, furgonetaekin batera, bizitzeko zeukaten toki bakarra edonor izozteko moduko hotzak egin zituen egunetan.

Txabola jabeekin, ordea,

udalak bilera deitu zuen, arazoari konponbidea bilatzeko.

Ijitoek eragindako zikin-keriarekin ere jarrera berdina adierazi zuen hirutarikoak. Goiz batean eskabadora eta kamioia bidali zituen, gune hura garbitzera, ez ijitoekin ez eta beste inorekin ere hitzik egin gabe, jakina!

Ijitoek ez dute hirutariko politikoen hitzik merezi? Teknikari bidez besterik ez bada, ezin baitut imajina korbatadun eta bitxidun politikoa bat ijito batekin hitzeginen.

Hirutariko gobernuak kontu honetan erakutsitako jarrerak hainbat gauza pentsarazi dit. PNV-EA-PSOEK osatutako taldeak ez dauka arazo honi aurre egiteko ahalmenik edo borondate onik. Bitartekoak badauzka. Udal langile batzuk harremanetan daude ijito familia hauekin. Beraz, hitzik gabeko jarrera eta eraso hauek guztiz xenofoboak direla esango nuke.

Hau da PNV-EA-PSOEK Arrasaterako nahi dutena? Herri xenofobia eta gutxiengoekin eta behartsuekin erasotzailea?

Herri Batasunatik salatu egin nahi dugu jarrera hau, arazoa modu positiboan aztertuz, eta ijitoekin izan beharreko elkarrizketei eta harremanei eutsiz. Gure gizartean bizitzeko tokia utz diezaikegu eta gure baloreak eta gutxieneko arauak errespetatzen erakutsi. Arrasate herri abegikorra eta solidarioa nahi dugulako.

*Ioli Perez de Arenaza  
HBko zinegotzia*

**UGARAN jatetxea**  
Garagartza auzoa  
Tfnoa: 79 76 58  
ARRASATE

**Memesa**  
79 42 22

**M ARENAZA**  
Altzariak  
Diseinua  
Apainketa  
Bizkai, 1 • ARETXABALETA  
Tel.: 79 08 07





## HARROTASUNEZ

Seme-alaben hezkuntza. Bizitzako gairik kontuzkoenetarikoa. Asmatu egin behar da. Zorionez, badago hezkuntza eredu bat benetan behar duzun segurtasuna eskaintzen dizuna: **Eskola Publikoa**.

Oraín, **zure txanda da**. Zure seme-alaben bizitza markatuko duen erabakia har ezazu. **Irakaskuntza kalitate bikaina**, pertsona bakoitzaren **hezkuntzan diharduten irakasleak**, **esperientzia eta primerako baliabideak** dituztenak eta **euskaraz** eskaintzen den irakaskuntza.

Informatu zaitez **Eskola Publikoko** edozein ikastetxetan.

**Izan, itxura eman baino gehiago.**

**A r r a s a t e k o**  
**Ikastetxe Publikoak**  
gogoko zenuen irakas mota



San Andrés: 79 20 69



Erguin: 79 77 74



Musakola: 79 04 49



Institutua: 79 44 47




# Zer deritzozu Gizarte Seguruntzatik 860 botika kentzeko asmoari?



**Rosalio Zubizarreta**  
(75 urte)

**Abaroa jubilatuen elkarte**  
**lehendakaria**

Ez du arazoa konponduko. Nire ustez, jendeak ordezko beste botika batzuk eskatuko dizkiete medikuei, eta jakina, garestiagoak izango dira.



**Juan Antonio Irizar**  
(42 urte)

**Botikaria**

Gu ez gaituzte ezertarako kontuan hartu. 93an ere antzeko neurriak hartu ziren, baina orduan ere ez zen gastu publikoa murriztu. Botika garestiagoak erosiko dira.



**Eugenio Iturriotz**  
(46 urte)

**Medikua**

Gaizki deritzot. Erabakia ekonomiaren ikuspegitik hartu da. Gainera, dirulaguntza kendu nahi dieten botika horiek salgai jarraituko dute, baina garestiago.



**Xabier Axpe**  
(38 urte)

**Ekonomilaria**

Botiken kontsumoa arrazionalizatzen bada eta aurretatuko den dirua ospitaleetako ohe kopurua gehitzeko erabiltzen bada, neurri egokia iruditzen zait.



**Joakina Leibar**  
(56 urte)

**Etxekoandrea**


Jubilatuentzat eta, gogorra izango da. Berez pentsioa bajua bada, nola ordaindu botikak garestiago? Jendearen iritzia jaso beharko lukete.



**Miren Ugarte**  
(60 urte)

**Etxekoandrea**


Oso gaizki. Egutero-egutero botikak hartu beharra daukan gaixo kronikoak, zer egin behar du orduan?



**Jose Ignacio Bouzon**  
(40 urte)

**Langilea**

Segurantzaren ordaintzen dugu, beraz, uste dut ez gure keela botikarik ordaindu behar.



**Juan Murillo**  
(60 urte)

**Jubilatua**

Oso gaizki. Estatuak ordaindu beharko lituzke botikak. Nahikoa ordaintzen diogu-eta gizarte segurantzaren.

## ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A

**Ondo ibili nahi duzu? Zuri laguntzeko gaude!**

- Lanerako eskalapoiak
- Bizkarra zaintzeko faja bereziak
- Hanketarako plantilla bereziak.

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 79 89 34

## Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktorea

HAURDUNALDIA  
AMNIOZENTESIA  
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA  
BASEKTOMIA  
BULAR PATOLOGIA

**SAN MARTIN OSASUNDEGIA**

Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72





## BIKAIN

Pasatzen den urte bakoitzak garrantzi handiagoa dauka. Bai fisikoki eta baita pertsonalki ere hazi egiten gara. Etorkizuna markatzen duten momentuak dira eta guztiz trebatuta heldu behar gara. Horretarako behar-beharrezkoa da irakasleak buru eta bihotz ihardutea, **irakaskuntza kalitatezkoa** izatea, **giroa aparta** izatea **pertsona bezala** hezitzeko, lagunak, instalazioak, jangela, etab. **Eskola Publikoan** gainera, etorkizunari begira, **hainbat aukeren artean nahi duzuna** hauta dezakezu. Informatu zaitetz **Eskola Publikoko** edozein ikastetxetan. **Izan, itxura eman baino gehiago.**

## A r r a s a t e k o Ikastetxe Publikoak gogoko zenuen irakas mota



San Andrés: 79 20 69



Erguin: 79 77 74



Musakola: 79 04 49



Institutua: 79 44 47



# ETXE MOBEL

MUEBLES

ALZARIAK

**LOGELATAN  
maisua**

**Zapatu  
arratsaldeetan  
zabalik!!**



**Eta orain  
2. SOLAIRUA**

**Saloi eta sofa  
erakusketa**

Etxe Mobil, Deba Garaian eta Behean zehar logela, sofa, egongela eta osagarriak errazago topatzeko saltokia. 48 urteko esperientzia. Hemengo profesionalak zuzendua. **BENETAN HARRIGARRIA!**

Araba Etorbidea, 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tel. / Faxe: 79 41 82

**ARRASATE**



USTEAK USTE

Gorrotoak, su txarra

**S**an Jose kooperatibak —gerora Eroskiren sorreran parte hartuko zuenak— han izan zuen etxea. Sortu berria zen Caja Laboralek ere hantxe hartu zuen berea: Iturriotz kalean. Kooperatiben historian esanahi berezia duen etxea. Larunbat goizaldean kiskaldu egin zuten. Larunbatekoa urtebetean jaso duen hirugarren erasoia izan zen. Eta larriena.

Bost axola esanahiak. Bost axola zer gerta ziezaiokeen goiko solairuan bizi den familiari. Bost axola dena. Badirudi horixe dela zenbaitzuen lelo ustez berria. Ustez. Aurten 550 urte beteko baitira banderizo batzuek Arrasate erre zutela. Bostehun eta berrogeita hamar urte eta zein gutxi ikasi dugun!

Presoak Euskal Herriratzeke, Euskadi eraikitzeke eta euskara normaltzeko, herritarren borondateak irabazi beharra dago. Ez goaz inora jendea zapuzten, biziak arriskuan jartzen eta ondasunak txikitzen. XV. mendeko banderizoen bidetik ez dago etorkizunik.

Joxe Aranzabal



Irak-i buruz esaten ez digutena

Arrate Landa

**E**san dezakegu, su etaneren ondoren ezarri zitzaizkion baldintzak ia bete dituela Irak-ek eta herri hori nekez izan daitekeela inorentzat mehatxu militarra. Horregatik Komite Internazionalistek gatazka horren benetako arrazoia argi utzi nahiko lukete: *Ekialde Hurbileko petrolioaren produkzio eta erreserben kontrol estrategikoa*, alegia.

Ez da asko ikertu behar baieztapen hori arrazoitzeko. Energiaren Mundu Kontseiluak berriki atera duen txosten baten arabera, gas eta petrolioaren energia eskatera nabarmen handituko da hurrengo hamarkadetan, eta horrekin batera, baita herrialde industrializatuek Ekialde Hurbilekiko izango duten menpekotasuna ere.

Eta menpekotasunaz ari garenez, EEBBena egoera kri-

tikotzat jo dezakegu. Hango Energia Sailak aditzera eman duenez, XXI. mendearen hasieran han kontsumituko den petrolioaren %70 Pertsiar Golkotik etorriko da. Saudi Arabiaren atzetik Irak da munduko petrolio erreserbak dituzten artean bigarrena, eta, kasualitatez, eskualde horretan bera da finantza errekurtsoen autogestio autonomoa —petrolioia 72an nazionalizatu baitzuen— eta oinarri demografiko garrantzitsua elkartzen dituen bakarra. Horrek bere garapenari gizarte- eta ekonomia aniztasuna ematen

“  
Irak petrolio merkatura itzultzeak Saudi Arabia eta Kuwait beren produkzio murriztera behartuko lituzke  
”

zion.

Hori horrela, EEBBek eta eskualde horretan bere aliatu diren Israel eta petromonarkiek, badute Saddam Hussein boteretik kentzea baino helburu garrantzitsuagoa: beraien kontrolpetik ihes egiten duen estatu arabiar indartsurik ez egotea, hain zuzen ere.

Horretarako, EEBBek Israelen nagusitasun finantzario eta militarrean oinarritutako normalkuntza bidea ezarri dute Mediterraneo aldean. Arabiar Penintsulan eta Golkoan mehatxu irakiarra darabil argumentutzat: horrela justifikatzen du, batetik, kontrol militar zuzena —Saudi Arabian 6.000 soldadu estatubatuar baino gehiago daude jada— eta mantentzen du, bestetik, nazioarteko babesa Bagdad-en gainean —Nazio Batuen Erakundearen bidez—.

—Zergatik eutsi nahi diete Irak-en aurkako zigorrei milaka irakiar errugaberen kontura bada ere? Azken sei urteotan, enbargoak gutxienez 1.200.000 irakiar hil ditu dagoeneko, horietatik 750.000 haurrak. Baina Irak petrolio merkatura itzultzeak Saudi Arabia eta Kuwait beraien produkzioa murriztera behartuko lituzke eta horrek, beren errege-familien irabaziak murrizteaz gain, EEBBei gerra ondoren Golkoan zabaldu zuten merkatu zibil eta militarra itxiko lieke

*Nahikoa da! Interes ekonomikoek eragindako heriotza gehiago, ez!*

Komite Internazionalistak

**JUBAR**  
ATEAK. S.L.®

- BURDINEZKO ATEAK ETA PERTSIANAK.
- AUTOMATISMOAK.
- KONPONKETAK.

Kataide poligonoa, 18 • ARRASATE  
Tel.: 79 10 20 • Fax: 79 08 17





## astea bi hitzetan

### ■ Aisialdia eta eskola programa

Txatxilipurdi elkarteak *Aisialdia eta Eskola* proiektua sortu du, 12 eta 18 urte bitarteko gazteek euskaraz hitz egin dezaten. Urtebetez, institutuko 800 ikaslek ariketa desberdinak landuko dituzte, euskararen erabilera suspertzeko. Ariketak tutoretza orduan eta aisialdiko ekitaldietan egingo dituzte. Txatxilipurdi arduradunen esanetan, interesgarria izango litzateke programa Arrasateko ikas-tetxeetan gauzatzea. Udalak 1.128.000 pezetako dirulaguntza eman dio Txatxilipurdiri programa gauzatu ahal izateko.

### ■ Bilera orokorra

Arrasate Musikalek Bilera

orokorra egin zuen joan den asteartean. Bileran 97-98 ikasturteko gestio plana aurkeztu eta estatutuen aldaketa eztabaidatu zen. Aurten go gestio plana ere azaldu zen. Bukatzeko, akademia musikalaren 25. urteurrena izan zen mintzagai. Gogoratu urteurrena dela eta, hainbat ekitaldi antolatuko direla hemendik ekaina bitartean.

### ■ Parrokiako kanpaiak

Konpondu eta gero, parrokiako kanpairik handienak aste honetan itzuli dira kanpandorrera. Dena den, beste zortzi kanpai jarri behar dira oraindik: berriztatuko sei eta berri bi. Parrokiako erloju zaharrak, bestalde, bere azken minutuak konstatuko ditu. Maiatza aldean,

erloju digital berria ezarriko dute Erdiko kalera ematen duen kanpandorreko horman.

### ■ Aretxabaletako erreka garbitzeko dirua

Gipuzkoako Foru Aldundiak Aretxabaletako erreka garbitzeko 1.000 milioiko dirutza inbertituko du. Erreka berreskuratzeko behar diren lanak egin eta gero, inguruko enpresen isurketen kontrol zehatza egingo dela aurreikusten da. Oraingoz, Deba erreka garbitzeko lanak Aretxabaletan eta Eskoriatzan hasiko dira.

Oñatin, bestalde, dagoeneko ekin diote garbiketa planari. Saneamendu laneekin ere lehenbailehen hasiko dira. Hiruzpalau urte berri, erreka garbi egongo da.



### ARRIKRUTZERAKO PROIEKTUA

Oñatiko Udalak begi onez ikusi du Mondragon Sistemasek eta LKSk Oñatiko Arrikruz leizea turismorako egokitzeko egin duten proposamena. Aurreproiektuaren arabera, ordubeteko bisita turistikoa antolatuko da, sistema informatiko sofisticatua eta baliabide multimedial erabiliz. 2005. urterako, urtero, 100.000 laguneko bisita jaso lezake.

“*Horiek horrela, Jon Sarasua (betegina izateko Txapela bakarrik falta lukeen bertso-intelektual organiko horrek, izan-behar-den-bezalakotasunaren eredu gailen horrek) kargu hartu digu berak ez bezala pentsatzen dugun zenbait bazter-nahasleri (bertsolaritzaren martxari buruz eta, beraz, orori buruz) ezkor agertzeagatik. Kritikaren mugak horretan-txe ezarri ditu Sarasuak, eta espero dugu noski —ba ote da munduan bera baino koherenteagorik?— hemendik aurrerako bere zer guztian ere halakoxe positibo eta eraikitzaile agertzea. Atzean geratuko dira, beraz, txapelketa-lehiaren autokritika bonzokara hura, eta jakina —ez baikara inor kultura aingeru huts—, euskal herritar gehienon asmo eraikitzaileen kontra dauden eta ari diren zenbaitzuen estrategia oroporrokatzaileen apologia nahiz isiltasun ozena. Baikor eta eraikitzaile, guztiok gauza guztietan, ezta, Jon?”*

**JUAN GARZIA GARMENDIA**

*El Correo*

1998ko otsailak 11

**GORKA**  
ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE  
Tel.: 77 13 78

Comercial  
**ARPE**

Kontzeziño, 4 behea • Tel.: 79 78 09



**Haratuzteetan ere apaindu zure ilea!**

**ZUK NAHI**  
Taberna

Pintxo goxoak giro onenean!

Erdiko kale ARRASATE  
Tel.: 79 79 26



# Caja Laboralen Iturriotzeko bulegoa erabat kiskalita, gazte batzuek eragindako erasoan

Larunbat goizaldeko hamabiak eta hamar izango ziren, Iturriotz kalean eztanda batzuk entzun zirenean. Zenbait lekukoren arabera, gazte mozorrotu batzuek molotov koktelak jaurti zituzten Caja Laboralek Iturriotz kalean duen bulegoan. Suak kutxazain automatikoak zeuden tokia hartu zuen. Inguruan zebilen jendea berehala hasi zen mugitzen. Batzuk Rumba tabernara joan ziren suhiltzaileei eta Ertzaintzari telefonoz deitzera.

Sua berehala zabaldu zen eta hirugarren solairuan bizi den familia, kalera irten behar izan zen, badaezpada. Hiru ume dituzte eta pijamatan atera behar izan ziren. Inguruko jendea laguntzen hasi zen, nola edo hala, batzuek itzalgailuak ekarri, besteak ura. Batzokiko jendea eta Rumba inguruan zebiltzanak ere buru belarri aritu ziren.

Suhiltzaileak iritsi zirenerako, inguruko auzokoek erdi itzalita zuten su nagusia. Azkenean, beheko solairua erreta geratu zen. Bigarrena, Lagun Arok daukana, kez bete bai, baina ez zuen kalte handiagorik izan. Hirugarrenak ere ez zuen bestelako kalterik izan, ezta alboko etxeak ere. Caja Laboraleko arduradunek adierazi dutenez, kalteak 40 eta 50 milioi pezeta-



Suteak 50 milioi pta inguruko kalteak eragin zituen.

koak izan dira.

Larunbat goizean langileek ingurua garbitzeari ekin zioten: suaren beltza eta erre usaina ziren nagusi. Kontuak kontu, Caja Laboralek goizeko 8:30etan ireki zituen atak astelehenean, baina Zerkasteta aldean. Bulegoko hamar lagunak estu-estu eta nolabait dabilta orain.

Iturriotz kalekoa izan zen Caja Laboralen lehen bulegoa. Dagoeneko hiru eraso jaso ditu: lehena orain urtebete, kristalak apurtu zizkiotenean; bigarrena Maritxu Kajoi

egunean, bi kutxazain automatiko erre zituztenean; eta hirugarrena, eta larriena, azken hau.

Eraso honek izan du erantzunik alderdi politikoen partetik: Arrasateko Udala gobernatzen duen hirutariko gobernuak gaitzetsi egin zuen atentatua asteleheneko Gobernu batzordean eta datorren astelehenean mozio bat aurkeztuko du egingo den osoko bilkuran. Oposizioari dagokionez, Ezker Batuak ere gaitzetsi egin du atentatua. HBk, bestalde, egoerari irtenbideak

bilatu behar zaizkiola adierazi du, horrelako ekintzen salatzetxe hutsean geratu barik.

## ISTILUAK BIONAN

Erreketaren ostean, bestalde, izan zen beste liskarrik Arrasaten. Atentatua zela eta, hainbat ertzain sartu omen ziren Biona tabernan, bateren baten bila. Bionako jabeen esanetan, tentsio handiko uneak bizi izan ziren, ertzainen jarreragatik. (Irakurri honi buruzko gutuna). Arrasateko Ertzaintzak, bestalde, ez du komentariorik egin nahi izan horren inguruan.

**OKORETEGI**

**KAFETEGIA**

Juan Carlos Guerra, 5 behea • ARRASATE • Tel.: 77 03 62



## Autozaleak adi Otolora kalean!

Datorren astean Otolora kaleko zati bat asfaltatuko da, Oken-do kalea eta San Frantzisko inguruko argiak lotzen dituen. Trabak ahalik eta txikienak izan daitezen, lehenengo norabide bat asfaltatuko da eta gero bestea. Hala ere, gerta liteke autopilaketak izatea. Datorren astean, beraz, adi ibili Otolora kalea zeharkatu behar duzuen autozaleok. Beharbada hobe izango duzue eta beste bidetaz hartzeko.

### Jaiotzak

- Gaizka Barrena Izurrategi. Otsailaren 5ean.
- Marcos Cordovilla Martinez. 10ean.
- Estibaliz Iturbe Mate. 10ean.
- Eric Moto Frutos. 11an.
- Joseba Vicente Lasaga. 13an.
- Imanol Etxezarreta Aragarate. 15ean.

### Ezkontzak

- Tarsicio Oteiza Mugerza eta Alicia Oteiza Iso. Otsailaren 14an. Zibilez.

# Aurtengo Haratuzteetan ez da Play-Back jaialdirik izango

Bihar ez da Play Back jaialdirik egingo. Jaialdia sortu zenetik, orain zortzi urte, lehenengo etenaldia izango da aurtengoa. Azkenengo sei edizioetan antolakuntza lanetan ibilitako Juan Ramon Arkauzek dioenez, "jende eta ideia berrien beharra somatzen zen eta lehenengo urteetatik hona parte hartu dutenek ere atsedena behar zuten". Jaialdi honek —SUDCek antolatua— Haratuzteetako larunbat gauak berotu izan ditu. Aurten, hala ere, "jaialdia antolatzeak ahalegin handia eskatzen du eta horren ardurat hartzeko, borondate faltat egon da", Juan Ramon Arkauzen ustez. Beraz, atsedena hartuko dute SUDCekoek.

Horren ordez, Haratuzteetako larunbat gauean *Las Veneno* antzerki taldearen emanaldia izango da Amaia Antzokian, udalak antolatuta. *Las Veneno* *Que fue de las hermanas Sue?* an-



Bihar ez da Play-Back jaialdirik egingo Amaia Antzokian.

tzezlan eskainiko dute.

Play-Back-a ez da urteroko SUDCek antolatutako ekintzetatik faltako den bakarra. Orain arte herriko mozorro-

rik onenak saritzeko lehiaketa ere, ez da egingo. Haratuzteetarako antolatu diren ekitaldi gehienak, asteartean egingo dira.

# ARROGOI TABERNA

HARATUZTEAK iriti dira. Aupa!

Zarugalde, 28 • ARRASATE • 79 06 40

## BAKAILO ETXEA



- Bakailoa eta beroni buruzko produktuak
- ISLANDIAko bakailoan espezializaturik
- Bakailoa kazoletak prestatzen dira (bakailoa gatzgabetua daukagu)

Mondragonés kalea, 7 (Azoka Plaza onduan) • Tel. 79 93 07

## PUB HAIZEA



# ESKIÑA taberna

ONDO PASAU HARATUZTE EGUNAK!  
Olarte, 25 • ARRASATE • Tel.: 79 20 20



# Arrasateko Udalean euskara erabiltzeko plana

Arrasateko Udalak plan bat egingo du udaletxeko langileek euskara gehiago erabili dezaten. Euskara planak, langune bakoitzean euskara zenbateraino beharrezkoa den eta menperatu behar den zehaztuko du. Horretarako, aztertu egin behar da udaletxeko sail bakoitzean gaur egun euskararen erabilera maila zein den. Azterketaren emaitzek, euskara erabiltzeko zer nolako beharra dagoen erakutsiko dute, eta horri erantzuteko, hartu beharko diren neurriak zehaztuko dira. Beste aldetik, langunearen arabera, langileak euskara maila bat edo beste lortu beharko du. Eskatutako maila lortzeko epe bat ezarriko zaio. Azken batean, udal langileen artean euskara eguneroko hizkuntza izatea lortu nahi da.

## EUSKARA NORMALTZEKO DEKRETUA

Arrasateko Udalaren euskara plana, Eusko Jaurlaritzak



Udaletxeko langileek euskara gehiago erabili dezaten plan bat egingo da.

indarrean jarritako dekretu bat dela-eta egingo da. Dekretu hau, iazko apirilean kalendratu zen, eta han jasotzen denez, euskararen erabilera normalizatu egin behar da herri administrazio guztietan. Horretarako, udalek euren beharretara egokitutako planak sortu behar dituzte.

Arrasatekoak joan den ekainean onartu zuen euska-

raren erabilera bultzatzeko plana egitea. Aste honetan, berriz, plana egiteko ardura-duna izendatu du: Andoni de Bedialauneta, Euskara batzordeburua. Andoni de Bedialaunetarekin batera, Jose Felix Diaz de Tuestak egingo du lana, gai teknikoen ardura hartuz.

Eusko Jaurlaritzak planaren jarraipena egingo du.

## Astehenean osoko bilkura berezia

Arrasateko osasun arloko langileek Pedro Guridi preso arrasatearraren osasunari buruzko mozioa aurkeztuko dute, udal bilkura berezian. Mozioan Pedro Guridiren osasun egoera larria hobetzeko neurriak hartzea eskatzen diote udalari. Pedrok hernia diskala du eta Arrasateko osasun langileek azaldu dutenez, bere gaitza desagertarazteko ebakuntza egitea da egokiena. Mozioan hiru eskakizun egingo dituzte osasun arloko langileek. Alde batetik, Pedro Guridik bere ueste oneko sendagileak aukeratzeko eskubidea berma dezala udalak. Bestetik, ebakuntza egin ahal izateko, Martutenera aldatzeko gestioak egitea. Bukatzeko, preso arrasatearraren osasun egoeraz interesatzea, osoko bilkurak egokien erabakitzen duen moduan.

Beste gai bat ere jorratuko da osoko bilkuran. Hirutariko gobernuak, Caja Laboraleko bulegoa sutan jarri zuen eraso gaitzesteko mozioa ere aurkeztuko du.

## LAN ESKAINTZA

### JAKINARAZLEA (Notifikatzailea)

**Izaera:** Funtzionario plaza

**Baldintzak:** - 18 urte gutxienez  
- Eskola Agiria  
- 2. hizkuntz eskakizuna

**Oinarriak:** Udaletxean jaso daitezke

**Izena emateko epea:** BOEn iragarkia argitaratzen denetik 20 egun berezko



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila ■

## KIROL ZERBITZUEN ESKAINTZA

AUKEA Kirol Erakundeak hainbat kirol zerbitzu bete behar ditu:

- **Igeriketa zerbitzuak (igeriketa egokitu, jarduera fisiko terapeutikoa)**

Informazioa eta dokumentazioa non eskuratu:

Musakolako Kiroldegian. Tel.: 77 16 77

Eskaintzak aurkezteko epea: 1998ko martxoaren 9a



ARRASATEKO UDALA

AUKEA ■

Kirol erakundea ■



## ZORIONAK BIKOTE



Jose Mari Balanzategik, Aizkorak eta Arantza Ezkurak 25 urte egin dute elkarrekin eta, urteurren berezia ospatzeko, meza eta bazkaria egingo dute bihar. Aizkoritaren udaletxeko lankideek zorionik beroenak opa dizkiote bikoteari. Euren partetik, ondoondo pasatu eta urte askotarako!



## ESTIBALIZEN BIGARREN GAUA

Estibaliz Iturbe jaioberriak Eskualde Ospitaleko eraikuntza zaharrean egin zuen lehen gaua. Bigarrena, berriz, pabilioi berriko gela dotore batean. Ama-alabak pozik bai pozik ziren, epiduralaren laguntzarekin, umetxoa ezin hobeto munduratu baitzen. Horrez gain, ezin gusturago hartu zuten etxe aldaketa. Argazkian Esti eta Maitane Mate, ama.



## TXOTX!

AEKk bigarren Sagardotegi Eguna ospatu zuen joan den larunbatean Astigarragan. Arrasatetik autobus bat joan zen, ikasle eta herriko lagunekin beteta. Oiarbide sagardotegian bazkaldu zuten Iparraldeko batzuekin eta arratsaldean artisau feria, musika emanaldiak eta ekitaldi desberdinak ikusteko aukera izan zuten. Sagardoa euskal giroan egun pasa polita egiteko aitzakia izan zen berriro ere.

# ETXERAT TABERNA

ZURGIN KANTOI, 5  
TEL.: 79 20 52  
ARRASATE

# EUSKAL PRESOK EUSKAL HERRIRA!





## EMAKUME MUSLARI GEHIAGO

Orain dela gutxi bukatu da emakumeentzat antolatutako bosgarren mus ikastaroa. Hogeita bat emakume ibili dira jokoren arauak, keinuak eta

tranpa guztiak ikasten, maila ona erakutsiz. Irakaslea, nola ez, Roman Lopez izan da. Romanek, dagoeneko 103 emakume izan ditu ikasten.

Ikastaroa bukatzeko, txapelketa egin zen eta Maribel Morales eta Arantxa Galdos izan ziren promozioiko onenak. Zorionak!

## IZENAK

### Jon Aberro


pasaatarra izango da Automodulos enpresa berriko gerentea. Aurretik Fagor Ederlango Merkataritza zuzendari eta Kontseilu Errektoreko lehendakaria izan zen. Fagorrek Ingalaterran duen ordezkartzako zuzendaria ere izan da.

### Luis Fernandez

kazetari eibartarrak Euskaldunon Egunkaria utzi eta Internetekin loturiko zenbait lan egingo ditu bere kontura bai Interneten, baita Jakin aldizkarian ere. Aurrerantzean etxean egingo du Egunkarirako Nabigatzen izeneko saila. Luis Fernandezek Arrasate Pressen eta ATBn egin zuen lan urtebetez.

### Xabier Zubizarreta

HBko Mahai Nazionalako kide aukeratu dute. Zortzi urtez Arrasateko alkate izan zen, oposizioan zeuden partiduek kargutik kendu zuten arte. Eusko Legebiltzarreko parlamentarioa da.



## PORT AVENTURARA!

*Kukaratxa Moteleko* lagunek sari *potoloa* oparitu zuten joan den ostegunean. Programa ikusi zenutenok jakingo duzue dagoeneko, Asier, Maikel eta Jon Ander izan zirela lehen finaleko irabazleak. Euren trebetasuna erakutsi eta gero, Port Aventura joango dira, Ekuador Bidaiaren eskutik.



# GAMMA

**ELEKTROLOGIA  
ZENTRUA  
BEHIN BETIKO  
DEPILAZIOA**

Aurpegi eta gorputzerako tratamendua • Doaneko kontsulta

Maalako Errabala, 17, 1.A • ARRASATE • Tel: 79 51 25





E N P R E S A S A I L A

### Prestakuntza

- Ikastaro trinkoak, hedakorak eta birgaitzekoak
- Ingelesa, frantsesa, alemana, italiera eta espainola

### Multimedia

- Ordenadore bidezko sistema elkarregilea
- Ingelesa, frantsesa, alemana
- AHIZKEen edo bezeroarenean

### Murgiltzea (BAITA ATZERRIAN ERE)

- Ingelesa ikasteko ikastaroak
- 6 lagun gehienez jota
- 6 eguneko ikastaroak
- 71 ordu

### Itzulpena eta interpretaritza

- 25 hizkuntza baino gehiago
- Ahozko eta idatzizko itzulpena
- 100 itzultzaile baino gehiago

Araba etorbidea, 4 • Arrasate • 20500 Gipuzkoa • Tel.: 943 - 71 20 55 • Faxe: 943 - 71 21 81 • E-Mail: cim@jet.es



# ZORIONAKI!

Zorionak ATB, zorionak  
Arrasate eta mila esker  
zuen laguntzagatik!

# 8 urte!





Ikastaro erdi trinkoa egiten dute argazkikoek. Kooperatibetako jendea sarri joaten da era horretako ikastaroak egitera.

# Hizkuntzak, gero eta garrantzitsuago enpresetan

Zenbat eta hizkuntza gehiago jakin, hobeto. Gaur egun herrialde batetik bestera joateko ez da arazorik izaten, eta horregatik ama hizkuntzaz gain, primeran etortzen da beste batzuk ere jakitea. Baina ez bidaiatzeko bakarrik, lanean ere jende askok behar izaten du atzerriko beste hizkuntza bat jakitea. Batez ere esportatze lanetan dabilzianak. Hori dela eta, normala izaten da enpresetako jendea ikustea ingelesa, frantsesa, alemana edo beste hizkuntza batzuk ikasten.

## KOOPERATIBAK ETA CIM-AHIZKE

MCC barruan dauden kooperatibek CIM-AHIZKE hizkuntza eskolarekin dute harreman zuzena. Kooperatibek eskatutako behar beste ikastaro antolatzen ditu CIMek. Ikastaro horietan enpresetako gizon-emakumeak izaten dira ikasle.

Ikastaro hauek kanpora begira lan egiten duten langileei daude zuzenduta. Mikel Lezamiz MCCko ikastaroetako arduradunak esan bezala, beren lanerako atzerriko hizkuntza bat behar izaten dute-

nentzat antolatzen dira. Hala ere, MCC barruan badira beste kasu batzuk "MCCko Zerbitzu Zentraletan orain hasi gara beste hainbat jende prestatzen. Beharbada gaur egun langile horiek ez dute beste hizkuntza bat jakiteko premiarik, baina gerora begira izan dezaketenez, prestatzen ari gara. Hori MCCko Zerbitzu Zentraletan egiten da. Beste kooperatibetan, premia duen jendea baino ez da joaten".

Ikastaro hauek antolatzea ez da merkea kooperatibentzat. Lezamizek adierazi bezala,

MCCk hezkuntzarako duen diruaren %80 hizkuntzak ikasteko ikastaroetan gastatzen da. Horrek esan nahi du beste ikastaro batzuekin inbertsio gutxiago egiten dela. Horregatik, enpresak ere emaitzak eskatzen ditu "Kooperatibako ikasleak aurrerapausoak erakutsi behar ditu, maila hobetzen doala. Hori guztia kontrolatu egiten da".

## IKASLEEI LAGUNTZEKO GERTU

Ikastaroan hasi aurretik enpresetako langileek azterketa bat



egin behar dute. CIMEk azterketak egiten ditu, ikasle bakoitzaren maila jakin eta nora heldu behar den zehazteko.

Hizkuntzak ikasten hasteko orduan, langileak ikastaro mota eta ordutegi desberdinak ditu. Mary CIMEko irakaslea da eta enpresen ikastaroetako arduraduna. Berak esan digun moduan, malgutasun handiko ikastaroak izaten dira. "Enpresak nahi duena ematen saiatzen gara. Gaiak, ordutegia eta denbora, enpresen beharrei lotuta daude".

### IKASTARO MOTAK


Exekutiboek lau eratako ikastaroak jaso ditzakete.

*Ohikoak, erdi-trinkoak, erabateko murgiltzekoak eta multimedia sistema bidez egindakoak.* 1997an, multimedia sistema abian jarri zenetik arrakasta handia izan duela esan digu Mary irakasleak.

Gai desberdineko *mintegiak* ere antolatzen dira exekutibeoi begira: aurkezpenak nola egin eta telefonoan eta batzarretan erabiltzen den hiztegia ikasten da, besteak beste.

Era honetako ikastaroak urtean hainbat aldiz antolatzen dira eta erantzun ona izaten dute. Aipatutakoaz gain, enpresak eskatuz gero, goizetik arratsalderainoko ikastaroak antolatzen ditu AHIZKEk. Erabateko murgiltze ikastaroak bezalakoak dira, baina ez dira lo egitera geratzen. "Azken hauetan inguruko enpresetara etortzen den atzerriko jendeak hartzen du parte, espainiera ahalik eta lasterren ikasi nahi dute eta".

Hizkuntza ikastaro hauek CIMEk Araba etorbidean duen egoitzan ematen badira ere, kooperatiba batzuetan posible



Multimedia sistemarekin ikasten ari dira hainbat ikasle. Gela hori CiMen bertan d

izaten da enpresan bertan ikastea.

AHIZKEk, jakina, eskola hauek gidatzeko profesionalak ditu. Ikastaroak helburu jakin batzuk lortzeko prestatzen dira. Horregatik, oso kontuan hartzen dituzte langileen beharrak.

### EDUKIA

Maryren esanetan, enpresari lotutako gaiak eta hiztegia erabiltzen dira ikastaroetan. "Enprekin hain lotura zuzena dugun estatuko lehen eskola gara. Lehen pentsatzen zen hizkuntza bat ikasteko lehenengo hiztegi orokorra erakutsi

behar zela eta gero gauza zehatzak. Hori ez dela egia ikusi da. Izan ere, enpresako hiztegia erabili arren, hizkuntzaren egitura ez da aldatzen. Adibidez, Etxean ohea, aulkiak daudela ikastea edo lantegian makinak eta ordenagailuak, gauza bera da".

### ORDUTEGIAK

CIM-AHIZKEk badaki edozein ordutegi ez dela egokia enpresa esparruko jendearentzat. Horregatik, malgutasun handiko ordutegiak dituzte enpresei zuzendutako ikastaroetan.

## Ikastaro motak

CIMEk lau eratako ikastaroak antolatzen ditu gure inguruko exekutiboentzat.

■ *Ikastaro normalak:* egunero eskolara joan eta ordubetez ikasteko.

■ *Erdi-trinkoak.* Arratsaldeko 14:00etatik 18:00ak arte, hilero astebetez ematen dira. Saiorik ez duten astetan laguntzarako edo mantenimendu eskola jasotzeko aukera ematen zaie.

■ *Murgiltze ikastaroak.* Mendiolan ematen dira, astelehenetik larunbatera bitartean. Taldeak mugatuak dira eta aukeratutako hizkuntzan murgiltzen dira buru berri. CIMEk baserri bat dauka Mendiolan, ikastaro hauek antolatzeko erabiltzen duena. Hala ere, Arantzazura ere joaten dira kooperatibetako jendearekin.

■ *Multimedia sistema.* Ordenagailu baten aurreran CDrom baten bidez, nor bere kabuz egiten ditu ariketak. Maila desberdinak daude. Astean lau bider joanda, zortzi hilabete behar izaten dute mailaz aldatzeko. Multimedia dabilzanek ikasitakoa praktikan jar dezaten, ordubeteko mintza saioak antolatzen dituzte astean behin.

**"Enpresetako jendeak —hamarretik bederatzik— batez ere ingelesa ikasten du. Ondoren, frantsesa eta alemana. Hala ere, italiara ikasten duenik ere badago. Kooperatiba bakoitzak atzerrian ditu berezoak eta horien arabera ikasi behar dira hizkuntzak"**





## LAN ORDUETAN IKASTEN

Kooperatibetako langileek lan orduetan hartzen dituzte eskolak. Ohiko ikastaroetan dabilzaneñ enpresak orduen erdia ordaintzen die. Gainerakoa langileak berak pagatzen du. Mugiltze ikastaroa. aldiz, enpresak ordaintzen du osorik. Matrikula ere enpresaren esku joaten da. Dena dela, garbi utzi behar da kooperatiba batek bestera desberdintasunak egon daitezkeela ordaintzeko moduetan.

## ERAGINKORRAK DIRA IKASTAROOK?

Exekutibo asko ikusten da ikastaroetan. Lanerako derri-gorrez behar duten hizkuntza ikasteko gogoz joaten ei dira. Batzuei, dena dela, gehiago kostatzen zaie; beste batzuek, berriz, ahalegin berezia egin barik, maila polita lortzen dute. Mary irakaslearentzat adina ez da hizkuntza bat ikasteko oztopo izaten. Gogoia eta borondatea behar izaten dira. ■

Itxaro Zubillaga

## Jabier Sagasta

### MCCko Analisi Ekonomikoen arduraduna

#### — Noiz hasi zinen ingelesa ikasten?


— Duela lau urte. Enpresari interesatzen zitzaien, eta baita nire ere. Donostiako ESTEn enpresa zientziak ikasi nituen, eta hantxe hiru ikastaro egin banituen ere, ahaztuta neukan.

#### — Noiz joaten zara eskoletara?

— Goizetan joaten naiz. Ohiko ikastaroetan hasi nintzen. Orain berriz, multimedia sistemarekin nabil. Multimedia sistema hotzagoa da, baina askatasun handiagoa ematen dizu, ahal duzunean joan zaitezke eta. Gainera, sistema hori mintzapraktika saio batekin osatzen da. Astero hiru ordu t' erdi joaten naiz. Bestalde, esan behar dut Arantzazun murgiltze ikastaroan ere izandakoa naizela eta gustatu zitzaidala.

#### — Ikastaroetan ikasten da?

— Bai, jakina. Nik ingelesa ez dut asko erabiltzen lanerako, baina bisitak ditugunean bai. CIMeko ikastaroetan ikasitakoarekin moldatzeko beste ikasi dut. Ikasteko bi sistema desberdin probatu ditudanez, esan dezaket multimediarekin gramatika gehiago ikasten dela, baina beste gauza batzuk galdu. Sistema biak gustatzen zaizkit. Hala ere, argi dagoena zera da, jatorrizko herrialdean askoz ere azkarrago ikasten dela.



## Iruñe Jimenez

### MCCko Nazioarteko Eragiketa idazkaria

#### — Zein hizkuntza ikasten ari zara?

— Orain alemana ikasten nabil, baina noizbehinka bakarririk joaten naiz. Ni, Jesus Mari Herrastiren idazkaria naiz. Bera alemana ikasten dabil eta asko bidaiatzen duenez, hemen ez dagoenean, ni joaten naiz. Maila altua dudanez, mantenimenduko saioetara joaten naiz.

#### — Noiz hasi zinen alemana ikasten?

— Ikasketak bukatu nituenean, Ingalaterran izan nintzen bi urtez. Ingelesa hantxe ikasi nuen. Gero Coprecin lanean hasi eta alemana ikasi behar izan nuen. Duela zazpi urte hasi nintzen CIMen. Hiru udatan, berriz, Alemaniara joan nintzen. Coprecin italiara ikasteko aukera ere izan nuen. CIMeko irakaslea etortzen zen lantegira. Urte batean dexente ikasi genuen.

#### — Ikastaroetan ikasten da?

— Bai, nik behintzat enpresak antolatutako ikastaroei esker ikasi ditut alemana eta italiara. Dena dela, hizkuntzaren jatorrizko herrietara joanez gero, askoz gehiago eta azkarrago ikasten da. Ez dago konparatzerik.

#### — Lan egiteko erabiltzen dituzu hizkuntzak?

— Ingelesa eguneroko eta alemana sarri. Ingelesez idatzi eta berba egin behar izaten dut.

#### — Multimedia sistema ezagutzen duzu?

— Ez. Batxillergoan frantsesa ikasi nuen, eta orain multimediaren bidez, berriro ikasten hasi behar nintzen, baina ez dut astirik.







## Ez da atsedetik izango bigarren aldiari ekin aurretik

**B**igarren aldiko taldeak dagoeneko osatuta daude. Lau multzo nagusi eratu dira, bakoitza zortzi talderekin. Itxura batean, A eta E taldeak izan daitezke indartsuenak. Lehen aldian ondo ibili diren talde gehienak hor daude eta horregatik, pentsa daiteke lehia ez dela nolana hiko izango. Larunbat honetan hasiko den faseari begira, zorte onena guztioi!

### Laburrak

■ **ADI ORDUTEGIAREKIN!**  
Bigarren aldiko partida guztiak Zaldibarren jokatu dira. Larunbatetan goizeko 9:00etan hasiko dira eta arratsaldeko 20:00ak arte iraungo dute. Igandean ere 09:00etan hasiko da; azken partida eguerdiko 14:00etan jokatu da.

Kontuz bada, aldaketarekin igandeko partida ordu bat aurreratu baita!

■ **IAZKO ARAUAK, BAINA KONTUAN HARTZEKOAK**  
Bigarren aldian antolatzaileek aukeratuko dituzte epaileak. Ramon eta Raul epaile ofi-

zialekin batera, antolatzaile batzuek beteko dute lan hori. Bestalde, ez dira ahaztu behar ondorengo arauak: faltatzen joko da atezainari gerritik behera baloia emanez gero, eta honek eskuaz hartzen badu. Hesiak bost metrora jarri behar dira. Alboko sarea area

barruan egiten bada, atezainak ezin du baloia eskuaz hartu. Kanporaketan minutuak epaileek erabakiko dituzte. Azkenik, jokalarien aldaketak porteria atzetik egin behar dira. Aipatutakoak dira bigarren aldian kontuan hartzeko arau nagusiak.



# URONDO

## Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea, 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE  
Tel.: 79 78 15 / 77 10 42 Faxes: 77 14 76



## Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Argi Ibili	17	15	1	1	106	44	<b>31</b>
Branak Taberna	17	13	1	3	81	45	<b>27</b>
Sokoakoak	17	12	2	3	93	40	<b>26</b>
Nuevo Taberna	17	11	1	5	80	56	<b>23</b>
Garaje Oscar	17	11	1	5	81	47	<b>23</b>
Tamagotxi	17	10	2	5	54	50	<b>22</b>
Leya	17	9	4	4	104	69	<b>22</b>
Ac Surcos	17	10	1	6	83	62	<b>21</b>
Jotakabau	17	8	2	7	41	48	<b>18</b>
Kkjauri	17	8	2	7	52	47	<b>18</b>
Ke Oxtias	17	7	4	6	75	52	<b>18</b>
Cartonajes Igamo	17	5	2	10	45	58	<b>12</b>
Ganbelas	17	3	4	10	44	62	<b>10</b>
Babajana S.	17	3	3	11	45	83	<b>9</b>
Onaniereng	17	3	2	12	48	89	<b>8</b>
Potrosorri	17	2	3	12	45	79	<b>7</b>
Nacex	17	0	0	17	34	187	<b>0</b>
Pipwhis	—	—	—	—	—	—	/

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Fraguel Gol	17	11	4	2	71	47	<b>26</b>
DA Iriztu	17	10	5	2	73	61	<b>25</b>
Betrayer	17	10	4	3	72	44	<b>24</b>
Jey Holigans	17	12	0	5	81	53	<b>24</b>
Jako Al Rey	17	10	3	4	69	49	<b>23</b>
Lautherbrunnen	17	10	2	5	74	60	<b>22</b>
Pepelus	17	10	1	6	75	63	<b>21</b>
Zotz	17	9	1	7	64	56	<b>19</b>
Irati STS	17	8	2	7	68	60	<b>18</b>
DKB	17	6	2	9	62	69	<b>14</b>
Bukanak	17	6	2	9	72	91	<b>12</b>
Komando Alpar.	17	5	2	10	53	75	<b>12</b>
Rotor de Bolb.	17	4	3	10	59	65	<b>11</b>
Ainarexia	17	3	2	12	55	93	<b>8</b>
Sobr. de Claro	17	3	1	13	46	99	<b>7</b>
Orlando Piratas	—	—	—	—	—	—	/
Arrogoi Taberna	—	—	—	—	—	—	/
Epeh	—	—	—	—	—	—	/

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Naranja Mekanika	17	14	2	1	104	40	<b>30</b>
Estrella Taberna	17	15	0	2	111	53	<b>30</b>
Koka Juniors	17	13	2	2	100	51	<b>28</b>
Lorategi	17	12	0	5	109	48	<b>24</b>
Aldibi	17	10	3	4	117	61	<b>23</b>
Aurrera Bolie	17	9	3	5	86	58	<b>21</b>
AT Celaya	17	9	2	6	69	55	<b>20</b>
Totem	17	9	2	6	85	40	<b>20</b>
Txeyenex	17	8	2	7	85	68	<b>18</b>
Los Heredia	17	7	3	7	68	53	<b>17</b>
Insert Coin	17	8	1	8	73	67	<b>17</b>
Borrock Roll	17	6	3	8	63	78	<b>15</b>
Aldapa Taberna	17	6	1	10	76	94	<b>13</b>
Kamasutra	17	3	5	9	46	67	<b>11</b>
Etxe Mobil	17	3	1	13	50	136	<b>7</b>
Iluna Taberna	17	2	1	14	46	113	<b>5</b>
Elisabeth	17	1	1	15	35	135	<b>3</b>
Makai	—	—	—	—	—	—	/



**URIBE AUZOA FUTBITO TXAPELKETA.** Aurten ere Uribe Auzoa Futbito Txapelketa izango dugu Arrasaten. Lehiaketa honetan parte hartzeko izen ematea datorren astelehenean eta asteartean egin behar da Monterronen, arratsaldeko 19:00etatik 20:00etara. Prezioa: 1000 pezeta.

## Emaitzak

### A taldea

Ke Oxtias 5 - Branka Taberna 6  
 Jotakabau 1 - Cart. Igamo 0  
 Sokoakoak 2 - Kkjauri 0  
 Babajana 5 - Argi ibili 7  
 Onaniereng 1 - Pipwhis 0  
 Ac Surcos 4 - Leya 11  
 Ganbelas 2 - Garaje Oscar 11  
 Nacex. S - Tamagotxi 6  
 Nuevo Taberna 3 - Potrosorri 0

### B taldea

Pepelus 5 - DA Iriztu 0  
 Jey Holigans 6 - Lautherbrunnen 4  
 Komando Alpargat 4 - Zotz 8  
 Irati STS 4 - Betrayer 6  
 Epeh 0 - Jako Al Rey 1  
 Orlando Piratas 0 - Fraguel Gol 1  
 Rotor de Bolb. 7 - Bukanak 9  
 Sobred. de Claro 1 - Arrogoi Tab. 0  
 Ainarexia 3 - DKB 4

### D taldea

Estrella taberna 7 - Insert Coin 2  
 Aurrera Bolie 8 - Txeyenex 2  
 Aldapa Taberna 7 - Iluna Tab. 5  
 Etxe Mobil 1 - Naranja Mek. 20  
 Borrock Roll 5 - Totem 12  
 Lorategi 7 - Los Heredia 5  
 Makai 0 - Kamasutra 1  
 Elisabeth 3 - Aldibi 16  
 Koka Juniors 6 - AT Celaya 2

**Aldibi**  
 Zigorrola, 1 • 1. pabiloia  
 Tel.: 71 20 02

## Bigarren faseko taldeak

### A taldea

Naranja Mekanika  
 Sokoakoak  
 Nuevo taberna  
 Jotakabau  
 Zotz  
 Aurrera Bolie  
 Insert Coin  
 Ke Oxtias

### D taldea

Fraguel gol  
 D. A Iriztu  
 Jey holigans  
 Irati STS  
 Kkjauri  
 Garaje Oscar  
 Los Heredia  
 AT Celaya

### B taldea

Argi Ibili  
 Koka Juniors  
 Betrayer  
 Tamagotxi  
 Jako al Rey  
 Pepelus  
 Ac Surcos  
 Lautherbrunnen

### E taldea

Estrella taberna  
 Branka taberna  
 Lorategi  
 Txeyenex  
 Totem  
 Leya  
 Aldibi  
 DKB

## Hurrengo partidak

### Otsailak 21, Larunbata • Zaldibar

08:50 Irati STS - Kkjauri  
 10:00 Jotakabau - Zotz  
 11:00 Naranja Mekanika - Ke Oxtias  
 12:00 Koka Juniors - AC Surcos  
 13:00 Tamagotxi - Jako Al Rey  
 14:00 Jey Holigans - Garaje Oscar  
 15:00 Argi Ibili - Lautherbrunnen  
 16:00 Nuevo taberna - Aurrera Bolie  
 17:00 Txeyenex - Totem  
 18:00 Sokoakoak - Insert Coin  
 19:00 Leya - Lorategi Potroak

### Otsailak 22, Igandea • Zaldibar

08:50 Estrella Taberna - DKB  
 10:00 Betrayer - Pepelus  
 11:00 D.A Iriztu - Los Heredia  
 12:00 Branka taberna - Aldibi  
 13:00 Fraguel Gol - AT Celaya



Aerobic irakaslea

## MANU FERNANDEZ

*“Arrasaten aerobic maila ona aurkitu dut”*

— Aerobic eskolak emateko Gasteiztik Arrasatera etortzen zara. Zelan, bada?

— Txirripaz. Neska-laguna Aretxabalatekoa dut eta Arantzazu Kiroldegiko aerobic irakaslea ezagutzen zuen. Arantzazuk proba egiteko esan zidan eta hementxe nago, irakasle lanetan.

— Nolako irakaslea zara?

— Oihu asko egiten dudala eta *kañeroa* naizela diote. Nik, dena dela, saio dibertigarriak eta atseginak egin nahi ditut. Jendea gustura etorri eta ordubete atsegina igaro dezan.

— Aerobic zaletasuna baino zerbait gehiago da?


— Lanbidea da. Oso gustura eta pozik nago, denborekin zaletasuna lanbide bihurtu dudalako.

— Zer maila aurkitu duzu Arrasaten?

— Kiroldegian oso maila ona. Jendea ondo prestatuta dago.

— Beste kirolekin alderatuz gero, zer eskaintzen du aerobic-ek?

— Aerobicen intentsitatea poliki igoten da. Ohartu barik, ariketa fisikoa egiten zabilta. Beste kirol batzuetan esfortzua hasieratik egin behar da eta jendearentzat neketsuago izan daiteke. Horregatik, edonork egin dezake aerobica.



## FUTBOLA Gero eta sendoago




Preferente mailako Mondra gero eta sendoago dago sailkapenean. Joan den asteburuan Beti Gazte taldearen kontra lortutako garai-penari esker, hirugarren tokira igo da eta une honetan 43 puntu ditu. Trintxerpe bigarren sailkatua baino puntu bat gutxiagorekin. Hurrengo jardunaldian ere aukera ona izan dezake puntuak eskuratzeko. Atxabalpera Mutriku taldea etorriko da domekan, arratsaldeko 16:30etan. Kostaldeko taldea sailkapeneko behealdean dago eta gaur arte ez du itxura sendorik erakutsi.

## FUTBOLA Indarrak pare parean



Mondrako Emakume Taldeak Anaitasuna izango du aurka igandean, eguerdiko 12:00etan Atxabalpen. Indarrez pare-parean dauden bi talde izango dira lehian. Horregatik, garrantzitsua da garaipena lortzea. Lehen itzulian banako berdinketa nagusitu zen. Igandean Arrasateko taldeak etxean jokatzeko duenez, pentsa daiteke jakingo duela abantaila aprobetxatzen.

## ESKUBALOIA Taldea osatzeko arazoak



Jesus Mari Herrero entrenatzaileak ezin izan zuen taldea osatu. Beraz, Deustuaren kontrako partida bertan behera geratu zen. Larunbatean Egiaren bisita jasoko dute Iturripen,

arratsaldeko 18:00etan. Entrenatzaileak uste du ordurako gaisorik eta min hartuta dauden jokalaririk batzuk sendatuko direla. Hobe horrela bada, bestela, gazte mailako beharra izango du taldea osatzeko. Egia taldeari dagokionez, Arrasate bezala, ez dabil oso ondo.

## SASKIBALOIA Ezin amore eman



Arrasate Saskibaloia Taldeari bigarren aldia hasiko zaio asteburuan. Aldi honetan ezin izango dira txantxetan ibili bigarren mailari eusteko. Hamar jardunaldi jokatu dira eta guztietan maila ematen saiatu beharko dira. Lehen erronka Iruñeko Humiclima taldearen kontra izango dute larunbatean, arratsaldeko 18:00etan, Iruñean.

## ERRUGBIA Atsedena



Arrasate Kirolak Errugbi taldeak atsedena izango du asteburu honetan. Otsailaren 28an, berriz, Durangoren kontra neurtuko dituzte indarrak Durangoan.

## JUDO Eskola arteko txapelketa

Arrasate Judo Taldeak antolatuta, Eskola Arteko Txapelketa jokatu da larunbatean Musakolako kiroldegian. 14 urtez beherakoentzat izango da txapelketa. Kontuak kontu, goizeko 10:00etatik 12:00ak arte judoka gazteak izango dira jaun eta jabe Musakolan.



# Dorletako Ama Txirrindulari Eskola, aurten ere harrobiari begira lanean

Dorletako Ama Txirrindulari Eskolak, aurkeztu egingo ditu bihar aurtengo eratu dituen taldeak. Goizeko 10:30etan txirrindulariek eta babesleek lore eskaintza egingo diote txirrindularien zaindariari Dorletako

Santutegian. Eguerdiko 11:30etan aurkezpen ekitaldia hasiko da, Gure Ametsa jate-txean. Txirrindulariak banan-banan aurkezteaz gain, zuzendaria eta babesleak ere ezagutzera emango dira. 12:00etan,

berriz, elkartzen diren guztiak luntxa izango dute.

Aurten Dorletako Amako lehendakari Jabier Lazkano da. Lehendakari ordea Lorenzo Bernal. Idazkaria Amparo Lopez. Txirrindularien sendagile ofi-

ziala, Alberto Garai izango da. Prestatzaile fisikoak, bestalde, Juan I. Errasti, Alex Iturbe eta Jose L. Eraña. Babesleei dago-kienez, Fagor, Alejandro Altuna eta Arrasate Kirolak izenak eramango dituzte.

## GAZTEAK

### Fagor taldea

#### Txirrindulariak

Fran Galan  
Iban Velasco  
Iñaki Llodio  
Asier Atxa  
Asier Bengoa  
Xabier Aiala  
Xabier Beitia  
Asier Sastre  
Gorka Almaraz  
Garka Garcia  
Alberto Murillo  
Imanol Garcia

## BIGARREN MAILAKO

### KADETEAK

#### J. M. A.

#### Txirrindulariak

Iker Bernal  
Eder Antia  
Jose Manuel Tena  
Imanol Solis  
Aitor Odriozola  
Jose Angel Lopez  
Jabier Marcos  
Josu Beitia

## LEHEN MAILAKO

### KADETEAK

#### J. M. A.

#### Txirrindulariak

Aitor Pavon  
Aitor Aginagalde  
Andoni Leibar  
Jabier Martinez  
Eneko Perez  
Aitor Frutos  
Iker Galarraga  
Danel Lazkano

## LEHEN ETA BIGARREN

### MAILAKO HAURRAK

#### Arrasate Kirolak

#### Txirrindulariak

Paul Mena  
Endika Martin  
Aitor Elorza  
Iñigo Jimenez  
Iñaki Juldain  
Jesus Galan  
Raul Blazquez  
Unai Gomez  
Mikel Arana

# Herriko karatea puntaren puntan

Gipuzkoako Karate Txapelketan ikusi ahal izan zenez, osasun ona du Arrasateko karateak. Saioa Karate Eskolatik zortzi ordezkari joan ziren eta zazpi domina ekarri zituzten. Gehiago ez dago eskatzerik!

Datorren larunbatean, bestalde, Euskadiko Karate Txapelketa jokatuko da, arratsal-

deko 17:00etan, Zornotzan. Saioa Eskolatik Gipuzkoako txapelketan izandako karatekak joango dira. Dena dela, beste arrasatear bat ere izango da hantxe. Isidor Ugarte gaztea kumitean Euskadiko onena izaten saiatuko da, eta egia esateko, badu helburua lortzeko aukerarik.

## Gipuzkoako Txapelketetan lortutako dominak

1. a Alaitz Aranburuzabala	53 kiloz azpikoetan
2. a Idoia Aranburuzabala	53 kiloz azpikoetan
1.a Garbine Tera	60 kiloz gorakoetan
1.a Zigor Jimenez	80 kiloz gorakoetan
2. a Jose Manuel Petite	65 kiloz azpikoetan
1.a Erik Martin	70 kiloz azpikoetan
2. a Mariano Santos	70 kiloz azpikoetan



Saioa eskolako karatekak Iñaki entrenatzailearekin. Argazkian Mariano, Trini eta Erik falta dira.



ISABEL RAMOS (HIZKUNTZA IKERTZAILEA)

# “Euskara gaztetxoan gla

**G**asteizen Ingeles Filologia ikasi eta gero, Edinburgeko Unibertsitatara joan zen, Eskoziara, Hizkuntzalaritza Aplikatuan lan egin nahi zuelako. Urtebetean doktoradutzako lehen urtea egin du, Jakintza Master bat eskuratu eta *Euskararen Normalizazioa Arrasaten* izeneko lana egin. Isabel Ramos da, oñatiarra eta euskaldunberria.

— Zerk bultzatu zintuen Arrasate aztertzeraz?

—Banuen AEDren lanaren berri, baita Txepetxen *Un futuro para nuestro pasado* liburuaren entzutea ere. Horratx.

— Zer informazio mota erabili zenuen azterketa egiteko?

— Alde batetik material teorikoa bildu nuen. Arlo praktikoa jorratzeko, osteraz, elkarrizketak egin nituen.

— Hogeitaz lagun elkarrizketatu zenituen. Zer irizpi-

de erabili zenuen aukeraketa egiteko?

— Ez astirik ez bitartekorik ez nuenez, elkarrizketak era kualitatiboan gauzatu nituen: jendeak euskararen normalizazioari buruz zuen iritzia jaso nahi nuen. Horretarako euskaldunak eta erdaldunak aukeratu nituen, bateko zein beste elkarteetako pertsona adierazgarriak, alderdietako ordezkari bana, kalean harrapatutako bi lagun, euskaltegiko bi irakasle eta Arrasatekoak ez ziren hainbat pertsona.

— Muturreko iritzirik aurkitu zeni-

tuen elkarrizketa horietan?

— Bai. Badira kontrako iritzia, baita kontraesanak eta koherentziarik eza ere.

— Euskarak batu ala banatu egiten ditu arrasatearrak?

— Nondik begiratzen den. Orokorrean, uste dut batu egiten duela, arrasatear guztiak harro daudela beren seme-alabek euskaraz hitz egiten dutelako. Alde horretatik, baietz esango nuke. Dena den, etorkin helduak defentsiban aurkitu nituen: komunikabideak (Arrasate Press, Arrasate Irratia eta ATB) euskara hutsean aritzearen aurka zeuden. Batzuek argi adierazi zuten amorrua horregatik. Haien seme-alabak, osteraz, askoz ere irekiagoak ikusi nituen.

— Etorkinekiko hizkuntza-bereiz-



“AEDk irudimena eta profesionaltasuna erakutsi ditu euskararen aldeko lanetan, baina orain esan liteke *impasse* egoeran dagoela, ideia faltan”



# ghetoa izateko arriskuan”

**keriarik somatu duzu Arrasaten?**

— Ikusi eta aztertu dudana nagatik, ez. Arartekoak ere ezetz erabaki zuen, egin zitzaizkion salaketek ez zutela oinarririk.

**— Zein izan da AEDren eragina euskara berreskuratzeko lanean?**

— Nik uste dut umeen eta gazteen artean euskara gehiago egiten dela, batez ere AEDri esker, euskara eskolaz kanpo zabaldu duelako, euskaraz bizitzeko aukera ematen dielako. Irudimena eta profesionaltasuna erakutsi ditu, beti ere euskara helburu duela.

**— Zure lanean aipatzen duzu AED ez dela, hala ere, alde guztietara iritsi.**

— Orokorrean ezagutzen da AED, batez ere Arrasateko erdialdean. Auzoetan, berriz, ez da ezagutzen: udalarekin nahastu dute batzuek, joera politi-

koa ikusten diote beste batzuek. Herriko zerbitzuetara ere —dendak, jatetxeak, ospitala, INEMen bulegoak...— ez da iritsi. Han ez da AEDren eragina nabaritzen. Dena dela, AEDk bakarrik ezin du. Laguntza behar du, udalaren partetik batik bat. AEDk bateratu egin beharko luke bere lana udalarekin eta herriko beste elkarte eta enpreekin. Hori ez badu egiten, bada go arrisku bat: euskara umeen eta gazteen *ghetoa* izatea.

**— Euskara berreskuratzeko lanetan kooperatibak ere aipatzen dituzu. Nolatan?**

— Alde batetik, jende asko euskaldundu eta alfabetatu delako kooperatibetan. Bestetik, bi eratako etorkinak erakarri dituelako: Espainiatik etorritakoak (gehienak kualifikatu gabeak eta erdaldunak) eta Euskal Herriko beste bazter batzuetatik etorriak (orokorrean kualifikatuak eta euskaltzaleak). AEDko sortzaile gehienak kooperatibistak eta etorkinak izan ziren.

**— Arrasaten egiten ari den lanak arrakasta izan duela uste duzu?**

— Oker ez banabil, baila-

rako herririk erdaldunena da, egoera soziolinguistikorik okerrera duena. Euskara berreskuratzeko egin dituen ahaleginak, ostera, itzelak izan dira. Alde horretatik, arrakastatsua izan da. Baina, Arrasate oraindik ez da euskaldundu.

**— Arrasateko lana erdugarri izan liteke beste batzuentzat?**

— Bai. Komunikabideetan hori garbi dago. *Arrasate Press*, esate baterako, eredia da euskararen normalizazioan.

**— Zer gomendio emango zenieke euskararen alde ari direnei, AEDri adibidez?**

— Lehenik, egin dezala plan orokor bat, sektorez sektore. Bigarrenik, zabal dadila gehiago gizarera. Ez da nahikoa hitzaldiak edo ekitaldi puntualak antolatzea. Hirugarrenik, saia dadila indar guztiak biltzen. Esan liteke AED *impasse* egoeran dagoela, ideia faltan. ■

**“AEDko sortzaile gehienak kooperatibistak eta etorkinak izan ziren, Euskal Herriko beste tokietatik etorritakoak. Hortik kooperatiben garrantzia ere”**



# LASAGABASTER

**USTE OSOKO DENDA.**

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 79 27 27 / 79 13 55



## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• Uribe auzoan etxebizitza salgai. Sukaldea, lau logela, 2 bainugela, egongela eta trastelekua. 104 m<sup>2</sup>. Tel.: 79 27 45.

• Otorala Lizentziatua kalean 45 m<sup>2</sup>ko estudioa salgai. Kontsultarako aproposa. Tel.: 79 27 45.

### 2. Erosi

• San Andres auzoan etxebizitza erosiko nuke. Tel.: 970 41 74 08. Jose.

• Konpontzeko dagoen etxebizitza erosiko nuke 60 m<sup>2</sup> ingurukoa. Tel.: 77 10 44 eta 908 77 33 27.

### 3. Errentan emateko

• Etxebizitza alojeran jarriko nuke, ahal bada ikasleei. Aretxabaletan dago, futbol zelaiaren ondoan. Tel.: 79 63 49. Iñaki. Gaueko 21:00etatik aurrera.

• Aramaion plaza ondoan dagoen etxebizitza alokatzen da. Tel.: 79 60 88.

### 4. Errentan hartzeko

• 3-4 logela dituen etxebizitza behar dut lehenbailehen. Tel.: 908 14 48 42. Jesus.

• Etxebizitza txikia, atiko edo teilatutua alokatuko genuke, merke. Tel.: 70 09 52. Gaeuz.

• Hiru laguntzako etxebizitza behar da Arrasaten. Tel.: 77 12 00. Xabier Zagartzazu.

### 5. Etxe konpartituak

• Alokaturako etxe batean edo pertsona batean sartuko nintzateke. Deitu 79 09 00 telefonora. Olatz, Gizarte laguntzaileaz galdetu. Roberto.

• Erguinen taldea osatzeko lagun bat behar da. Tel.: 79 37 66.

## GARAJEAK

### 7. Saldu

• Roneoko etxeetan lehenengo solairuan garajea salgai. Tel.: 79 18 70.

• Etxebizitza batean logela bat alokatuko nuke. Tel.: 948 25 47 16. Deitu gaueko 22:30ak baino lehen.

• Erguinen bi solairuko garajea salgai. Tel.: 79 48 91 eta 79 96 39.

## ETXEBIZITZAK

- Saldu
- Erosi
- Errentan emateko
- Errentan hartzeko
- Etxe konpartituak
- Bestelakoak

## GARAJEAK

- Saldu
- Erosi
- Errentan emateko
- Errentan hartzeko
- Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

- Saldu

- Erosi
- Errentan emateko
- Errentan hartzeko
- Bestelakoak

## LANA

- Eskaintzak
- Eskaerak
- Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

- Eskaintzak
- Eskaerak
- Bestelakoak

## MOTORRA

- Saldu

- Erosi
- Bestelakoak

## DENETARIK

- Saldu
- Erosi
- Trukatu
- Eman
- Hartu
- Galdu
- Aurkitu
- Bestelakoak

## HARREMANAK

- Agurrak
- Harremanak
- Deialdiak
- Bestelakoak



# 77 05 65

Arrasate Press • Otorala Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)  
E-mail: arrasatepress@readysoft.es

**Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohaineakoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deltu behar da iragarkia jartzeko.**

• Kontzeziñon lehenengo solairuan garajea salgai. Tel.: 79 18 76.

• Bañez Doktorea kalean garajea salgai. Prezio ona. Tel.: 79 93 91. Jose Mari.

### 9. Errentan emateko

• Erguin auzoan garajea alokagai. Tel.: 79 13 97. Gaeuz.

• Uribe auzoan garajea salgai. Tel.: 79 27 45.

• Roneoko etxeetan garaje itxia alokatzen da. Tel.: 79 19 64.

• Taberna bat alokatzen da. Tel.: 77 14 93.

### 10. Errentan hartzeko

• Garajea alokatuko genuke. Lur azpikoa ez balitz hobe. Tel.: 79 54 23. Jaione.

## LOKALAK

### 14. Errentan emateko

• Bergarako Ubera auzoan lokala dau-

kat alokatzeko. Tel.: 79 05 63. Utzi mezua.

• Fernandez janaridenda alokatu nahi da. Oso bezero onak ditu. Tel.: 79 48 91 (Aurora). 79 96 39 (etxe-koa).

• San Andresen frutadenda eskualdatzen da. Tel.: 79 72 91. Gaueko 21:00etatik 22:30etara. Ramon.

• Bergarako Bolu kalean lau gelako bulegoa alokagai (Osorik edo gela-ka). Tel.: 76 58 91.

### 15. Errentan hartzeko

• Gazte batzuk toki baten bila dabil-tza. Tel.: 79 56 14. Igor.

• Gazte talde batek toki bat erren-tan hartuko luke. Tel.: 79 53 18. Asier.

## LANA

### 17. Eskaintzak

• Pertsona gaztea edozein lan egi-teko gertu. Tel.: 79 48 97.

• Esperientziadun klinika laguntzai-lea pertsona nagusiak zaintzeko ger-tu. Tel.: 79 34 09.

• Asteburuetan edozein lan egiteko emakumea gertu. Tel.: 79 62 69. 21:00etatik aurrera.

• Esperientziadun saltzailea lan egi-teko gertu. Tel.: 79 31 58. Asun.

• Pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko ger-tu. Orduka ere bai. Tel.: 79 51 29.

• Asteburuetan eta jai egunetan emakume euskalduna pertsona naga-siak zaintzeko gertu. Tel.: 76 37 80. Eguerdietan.

• Neska gertu umeak zaindu edo kama-rero lanak egiteko. Tel.: 79 57 64.

• Orduka garbiketak egin edo per-sona nagusiak nahiz umeak zaintzeko neska gertu. Tel.: 71 53 74. Deitu goizez edo 20:00etatik aurrera.

### 18. Eskaerak

• Baserri lanetarako pertsona bat behar da. Tel.: 33 05 95.

• Emakume euskalduna behar dugu umeak zaindu eta etxeko lanak egi-teko. Tel.: 79 35 73.

• Sukalderako laguntzailea behar da. Tel.: 79 11 25.

• Kamarero euskaldunak behar dira. Tel.: 78 35 26.

• Adineko senar-emazteak zaintze-ko 35 urtetik gorako emakumea behar da. Euskalduna bada, hobe. Tel.: 76 51 67. Arratsaldeko 20:00etatik 22:00era arte.

• Kamarero gaztea behar da. Tel.: 79 67 12. Goizez.

• Garraiolari laguntzaile lanetarako mutil arrasatearra behar da. Tel.: 907 70 20 46.

• Kamarero euskalduna eta esperi-entziaduna behar da. Tel.: 79 24 58.

• Emakumea behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tel.: 79 49 92. Gaeuz deitu.

• Asteburuetarako kamareroa behar da jangelan zerbitzeko. Tel.: 79 68 57.

### 19. Denetarik

• Lanak ordenadorez pasatzen dira. Tel.: 79 79 84.

• Suitzara *au pair* bezala joateko nes-ka bat behar da. Frantsez apur bat jaki-tea beharrezkoa da. Tel.: 79 40 91.

• Eskuak jarrita osatzeko modu natu-rala (Reiki). Tel.: 79 45 74.



**IRAKASKUNTZA**

**20. Eskaintzak**

• OHO, LH, DBH eta latin eta ingeleseko eskola partikularrak emango nituzke. Esperientziaduna eta merkea. Tel.: 79 47 35.

**21. Eskaerak**

• 2. REMeko ikasgaiak lantzeko eskola partikularrak hartuko nituzke. Tel.: 79 19 36. Aitor.

• Kontabilitateko eskola partikularrak jasoko nituzke. Tel.: 79 36 83. Gaueko 21:30etatik aurrera deitu.

• 1. LOGSEko ikasle batek kimika eta matematika eskola partikularrak hartuko lituzke. Tel.: 79 68 37.

**MOTORRA**

**23. Saldu**

• Suzuki Hard Top 4x4 autoa salgai. Gris metalizatua. 5 martxaduna eta estriboetako babesgarriekin. Tel.: 79 09 92. Eguerdiko 13:00etatik

16:00etara.

• Yamaha 250 SR Special, SS-AM motorra salgai. 9.000 km. Prezioa: 250.000 pta. Tel.: 79 70 58.

• Peugeot 405 GLD autoa salgai. 1.900 diesela. Gorria. Egoera onean. VI-N. Tel.: 70 02 05

• Opel Corsa 1.200, SS-AC salgai. 250.000 pta. Tel.: 77 02 18.

• Derby markako motorra salgai. 49 cc. Tel.: 79 73 42.

**DENETARIK**

**26. Saldu**

• Marrazketako mahaia salgai. Merkea. Neurriak: 81 x 140 zm. Tel.: 79 09 92. Bazkalorduetan edo gauez.

• Faxdun telefonoa salgai. Berria eta prezio onean. Tel.: 79 65 31. Tere.

• Ordenagailua salgai. Tel.: 970 41 74 08. Jose.

• Kenwood 758 R autorako irratia eta CDa salgai. Bi subwoofer JBL 400 w ditu. Prezio interesgarria. Tel.: 79 26 16 edo 79 27 70. Urtzi.

• Mastin arrazako bi txakurkume salgai. Tel.: 33 05 95.

• Fagor markako 10 litroko ur berogailua salgai. Tximinia du eta ia berria dago. Merkea. Tel.: 79 65 31. Tere.

• Game Boy-a salgai. 2 joko. Tel.: 79 12 95. Miren.

• Bigarren eskuko Mercury markako parapentea salgai. Tel.: 79 48 09. Itziar.

• Bulegoko lau aulki salgai. Egoera ona. Egongela baterako ere aproposak izan daitezke. Tel.: 79 79 46.

**27. Erosi**

• Single diskoak erosiko nituzke. Tel.: 52 65 77.

**29. Eman**

• Bost hileko txakur mestizoa oparrituko nuke ondo zainduko duenari. Tel.: 79 90 46.

**31. Galdu**

• Giltzak galdu ditut Uribe auzoan. Tel.: 71 53 40.

• Urtarrilaren 20an edo 21ean urrezko eskumuturrekoa galdu nuen Arrasaten. Zuria eta gorria da. Tel.: 79 84 23.

• Joan den larunbatean Casio markako erlojua galdu nuen San Viator Txikin futbol entrenamenduan. Tel.: 79 17 32.

**32. Aurkitu**

• Gurutze idatzita daraman katea aurkitu dut. Tel.: 79 77 79.


• Zaldibarren forro polarra eta patin batzuk aurkitu nituen. Tel.: 79 28 38.

• Muru bidean ezkontzako eraztuna aurkitu nuen. Tel.: 79 53 40. Gaueko 10:00etatik aurrera.

• Eskola Politekniko inguruan Rover markako auto baten giltzak aurkitu nituen. Ikastetxe nagusian daude. Tel.: 77 16 61.

**37. Bestelakoak**

• Artzain txakur aleman eme baten bila nabil nirearekin nahasteko (nirea artzain alemanaren eta artzain alsaziarren nahasketa da). Tel.: 70 03 37 edo 79 36 12.



**WERU®**  
**Ate + leihoak**



**ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2**  
**BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia**  
**Tel.: 79 24 12 eta 79 97 95**  
**ARRASATE**




*Salterain*

**PVC-zko ate eta leihoez gain:  
moksetak,  
zoru arinak,  
kortxoa,  
Louverdrape  
kortinak,  
Kortinoba, testila...**



## ■ Garikoitz Kortazar

ARRASATE IRRATIKO ESATARIA



**E**skoriatzarra da, baina joan den irailetik Arrasateko berriak kontatzen ditu egunero Arrasate Irratian. Benetan pentsatzen duena garbi esateko ez dauka batere eragozpenik, eta hori ez da oso ohikoa kazetariengan. Bere erantzunak irakurrita, bi zalantza geratu zaizkigu: amazuloa ez ote den, eta mendi ton-torreko bere txabolara, albisteak kontatu ahal izateko mikrofono eta guzti joango litzatekeen.

- 1.- Zein da zure horoskopoa? Aries.
- 2.- Sinestuna zara? Nire era-ra, baina bai.
- 3.- Animalia bihurtzekotan? Hartza.
- 4.- Zure akats bat/gauza on bat? Axolagabe samarra naiz/Entzuten badakit.
- 5.- Zerk lotsarazten zaitu? Gauza gutxi.
- 6.- Amets bat? Euskal Herria bakean eta libre.
- 7.- Zer kenduko zenuke mundutik? Inbidia eta handinahia.
- 8.- Gertakizun historiko bat? Urriko Iraultza.
- 9.- Nor miresten duzu? Ghandi.
- 10.- Zeri diozu beldurra? Zahartzarari.
- 11.- Zeozer garbatzen zaizu? Askotan, nire ideien arabera ez izatea.
- 12.- Negar egin duzun azken aldia? Lagun on bati agur esatean.
- 13.- Zer falta zaio Arrasateri? Politiko-en koherentzia.
- 14.- Eta zuri? Oporraldi luzea.
- 15.- Lanbidez aldatzekotan? Suhiltzaila.
- 16.- Arrasateko gustuko toki bat? Uda-la.
- 17.- Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori? Gitarra ikasteko izena eman.
- 18.- Zein egunkari irakurtzen duzu? Euskaldunon Egunkaria eta Egin.
- 19.- Gustuko janari bat? Nire amatxok prestatutakoak.
- 20.- Liburu on bat? *El perfume*.
- 21.- Filmik onena/txarrena? *La lista de Schindler*/Estesorenak.
- 22.- Musika talderik onena/txarrena? Eric Clapton/Camela.
- 23.- Telebistako saiorik onena/txarrena? *Caiga quien caiga/Lo que necesita es amor*.
- 24.- Egin dizuten oparirik politena? Mesanotzeko lanpara polit bat.
- 25.- Denbora librea zertan pasatzen duzu? Lagunekin txikiteoan, kirola egiten edo musika entzuten.
- 26.- Oporretarako toki bat? India.
- 27.- Etxeko lanik gorrotagarriena? Hautsa kentzea.
- 28.- Gomendio bat? Pazientzia apur bat nirekin, mesedez...
- 29.- Zeren alde emango zenuke bizia? Lagun on baten alde.
- 30.- 200 milioi pta. irabaziz gero? Nire ametsetako txabola egingo nuke mendian.

**PUBLICOP**  
PUBLIZATEA OBJEKTOAREN BIDEZ

**ENPRESARIOAK ADI!**  
eskaintza bereziak bulego  
berriaren inaugurazioa dela eta!

Enpresa opariak • Publizitate eskaintzak • Moldiztegia • Gomazko zigiluak

PUBLICOP- Konfiantzazko konponbideak. Denda berria  
Hiper-Eroski saltegian. (7. kuxtaren parean, 13.zenbakian).

**Otsailak 28**

EGUN OSOAN ZABALIK (10:00etatik 21:00etara)







# ¿Pentsatu duzu aurtengo mozorro-jantzia?

Gura duzunerako  
beharrezko guztia

*Casa Ceciaga*

Aukera handia oihal,  
mozorro, soineko eta  
osagarrietan.

Beherapen bereziak  
taldeentzat

Maialako  
Errabala, 3  
ARRASATE  
Tel•Fax: 79 12 62



# Ekaina bitarteko antzerki egitaraua, prest

## Apirilerako asteburu barregarria antolatu da

Ekaina bitartean sei antzezlan ikusteko aukera izango dugu Amaia antzokian. Horiekin batera, martxoaren zortzian, Iziar, lehen ganbera opera euskalduna eskainiko da.

Antzerkiaren egitarauari dagokionez, asteburu honetan bertan *Las Veneno* antzerki taldearen azken lana izango dugu Arrasaten: *¿Qué fue de las hermanas Sue?* Ikuskizun umoretsu honetan, Hollywoode-ra ospe bila doazen Murtziako bi ahizparen istorioa kontatzen du Madrilgo bikote ezagunak, musikaren eta koreografiaren laguntzaz.

Martxoaren zazpian, Emakumearen Nazioarteko Eguneko egitarauaren barruan, *Melody Sisters* taldeak *Con lo puesto* lan barregarria eskainiko du. Bi protagonistak, emakumeak, psikologoaren itxarongelan daude, bata besteari bere historia kontatzen. Bi galtzaile dira, eta euren bizitzaren unerik dibertigarrienan, hil egingo dira. Kontakizunerako bitarteko nagusia umorea da, baina aldi berean, egileak ez du galdu sexualitate, gizakien arteko harremanak edo heriotza bezalako gaiak jorratzeko aukera.

Aurtengo berrikuntza nabarmenena, apirilaren 25 eta 26rako prestatu den asteburu komikoa da. Egun horietan lehen mailako nazioarteko artistak izango ditugu geurean. Alde batetik, *Green Gingers*, hogeitun txotxongi- loen abangoardian dagoen talde ingelesa, zentzubakoa sarritan, harrigarria beti. Eta bestetik, Leo Bassi komiko ita-



Green Gingers taldeak *Slaphead* lan barregarria antzeztuko du.

liar ospetsua. Berritzailea, zirikatzailea, politikoki batere zuzena, Leo Bassi mende honetan izan den komedianterik onenetakoa da, azken pailazoetako bat, guztiari barre egiten dakiena, baita bere buruari eta bere ikuskizunari ere. Apirilko asteburu komiko berezi honetan, *Green Gingers* taldeak *Slaphead* antzezlana ekarriko du Arrasatera, eta Leo Bassi, *Instintos ocultos*.

Azkenik, San Joan jaien atarian, Juan Antonio Urbeltzek zuzendutako *Kondharian* ikuskizuna taularatuko da Amaia antzokian. Lan honek, euskal dantzak, musika eta sineskeria uztartu ditu. Koldo Ameztoy kontalariak zazpi ipuin herrikoi kontatuko

ditu, koreografiaren eta musikaren laguntzarekin.

Bestalde, udaleko Kultura sailak adierazi duenez, antzezlana baten euskarazko eta gaztelaniazko bertsiok ekartzeko aukera dagoenean, bietan programatuko da aurrerantzean. Jon Garai Kultura teknikariaren esanetan, "azken hilabeteetan, irizpide hori jarraitu denean, erantzun ona jaso da ikusleen aldetik".

Iazko antzerki programazioari dagokionez, lau mila ikusletik gora bildu ziren, antolatutako hamahiru emanaldietan. Guztietan arrakastatsuen, *Tantaka* taldearen *El florido pensil* lana izan zen. Amaia antzokia bete egin zen lan honen bi emanaldietan.

### EMAKUMEON TXOKOA

#### IKASTAROAK

- Emakume Saileko Ikastaroak
    - Autoestima
    - Autodefentsa
    - Menopausia
    - Grafologia
    - Informazioa: 79 09 00
- Emakume Saila

- INEMek lan ikastaroak antolatzen ditu (berri gehiago INEMen: 79 71 45).

- EKIN eta Familia eta Gizarte Heziketarako Zentrua hainbat ikastaro antolatzen ari dira. Informazioa: EKIN (77 12 28) Zentrua (79 04 59)

#### DIRULAGUNTZAK

- Emakume Sailaren dirulaguntzak: emakume talde guztiei zabalduak. Epea Otsailaren 27a.

#### ZERBITZUAK

- Emakume Sailak emakumezkoiei zuzendutako hainbat zerbitzu ditu. Informazioa edo laguntza behar baduzu, zuri laguntzeko gaude.

Sexu Informaziorako Bulegoa: 79 80 10



79 09 00

Emakume Saila



Gidari onenek

**OHOREZKO-MATRIKULA**

merezi dute

**Zatoz MAPFRE ra**  
**Areagotu  zure hobariak**

**Mapfrenen Ohorezko Matrikula Planarekin, gaur egungo polizaren antzintasuna gorde** ahal izango duzu.  
 (95-l-l baino lehenago edozein konpainiatan kontraturiko polizentzat)

Lor itzazu **hobariak onenek denborarik laburren.**

Automobil Aseguruetan dagoen **Lehen** Erakundearen babesarekin.

**3.000.000 ibilgailu baino gehiago** aseguratutik eta **2.400 bulego, bezeroak zaintzeko.**


Asegura ezazu zeure autoa behar bezala.

**MAPFRE MUTUALIDAD**

Ondo gidatu. Seguru ibili.

Garibai Etorbidea, 16 • Tel.: 79 89 00

Arrasate Pasealekua, 37 • Tel.: 79 71 31



Antzerkia

**¿Qué fué  
de las hermanas  
Sue?...!**

- Otsailak 21 (larunbata)
- Gaueko 22:30etan
- Amaia Antzokian
- Sarrerak: 1.000 pta.  
(Gazte-Txartelarekin 800 pta.)



ARRASATEKO UDALA



**FIAT**

*Alfa Romeo* 



**Alfa Romeo 156, Europan 1998. URTEKO AUTOA!**



**ADI,  
BESTE  
TOKI  
BATEAN  
GAUDE!**



**Fiat Palio Weekend**

**=KANPAZAR**

**ERAKUSKETA : Araba Etorbidea, 32 • ARRASATE**

**Tel: 79 77 66 • Faxes: 77 12 84**



JOANNA ETA HESTER SUE, HOLLYWOODEKO IZARRAK

# “Glamourraren apologia egin nahi dugu”

Hester eta Joanna Sue, hau da, Murtziako Totana herriko Esther eta Juana Suarez, Hollywoodeko ospearen bila abiatu ziren halako batean. Berrogei urte geroago, esames ugari dabil, asko eta gaizki hitz egin da, baina inork ez dauka euren berri zehatzik. Horregatik, *Las Veneno* bikote ezagunak gonbidatuta, euren benetako historia kontatzera itzuli dira. Horretarako, *¿Qué fue de las hermanas Sue?* ikuskizuna antolatu dute. Bihar izango dira Amaia antzokian.

- Zergatik joan zineten Ameriketara?

- Kokoteraino geunden Murtzian. Beti esan ohi genuen “ortuan baino, hilik nahiago”. Las Vegasen Xavier Cuvait ezagutu genuen eta bere laguntzari esker, hango antzoki eta kabaret onenetan egin genuen lan. Hollywooden gero, hamaika filmetan hartu genuen parte, eta inguruko jaietako gatz eta piperra ginen. Gularen astea antolatu, eta gure lagunak gonbidatzen genituen: Dean Martin, Jerry Lewis... Aste osoa pasatzen genuen Beverly Hillsko gure etxean.

- *¿Qué fue de las hermanas Sue?* ikuskizuna, *show concert* bat dela diozue. Zer da hori?

- Ameriketan egiten genituen ikuskizunen egokitzea da. *Show concert* bat dela diogu, abestu, kontatu eta dantzan egiten dugulako. Gu zirujiaren alde gaude, ez dugu uste zimurra ederra denik. Hainbeste urteren ondoren bueltatu egin gara eta, ustez hain aurrerakoia eta hain modernoa den herri hau gris kolorekoa da erabat. Pena



ematen du. Ikuskizunean estetika izugarri zaindu dugu, glamourraren apologia egin nahi dugu.

- Nolatan hain izar ezagunak Arrasate bezalako herri txiki batean?

- Guztiek dute gure benetako historia ezagutzeko eskubidea. Herritarrengandik hurbil egon nahi dugu, benetakoak garea ikus dezaten, uki gaitzaten, gertutik ezagut dezaten izar bat zer den. Gainera, estatu osoan Euskal Herrian egin digute harrerarik onena.

- Eta ikusleak mozorroa jantzita joango balira bihar antzokira? Haratuzteak dira!

- Nahikoa mozorrotuta joango gara gu! Tira! Garrantzitsuena jendea bihar antzokira etortzea da, mozorrotuta edo ez, jantzita edo biluzik.

- Publiko guztientzat?

- Jakina.

## “Estatu osoan Euskal Herrian egin digute harrerarik onena”

### aste gazte

#### ■ ERRALDOIEKIN DANTZAN

• Erraldoiekin ibiltzen eta dantzatzen ikasi nahi dutenei zuzenduta, saio bat antolatzeko prest daude herriko kiliki eta erraldoien konparttsako lagunak. Interesa, gogo eta jakinmina duten 16 urtetik gorakoek zuzendua. Larunbat goizetan. Interesatuek Gazte Bulegora jo.

#### ■ EUSKAL DANTZAK

• 10-14 urte bitarteko neska-mutuei zuzendutako ikastaroa Asteazkenean hasiko da. 18:30etatik 19:30ak arte. Matrikula; 1.000 pezeta. Eman izena lehenbailehen Gazte Bulegoan (77 00 65)

#### ■ BEKAK

• Gutxitu Fisikoei zuzenduta, lanbide heziketarako bekak, Mapfre Fundazioak sortuak, 98-99 ikasturterako. Epea: martxoak 31

#### ■ IKASTAROAK

• Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak, mendi eski ikastaroa antolatu du, Neouvieillen egingo dena, martxoaren 19tik eta 22ra bitartean. Alpinismo hobekuntza ikastaroa ere, martxoan 7tik 8ra eta 14tik 15era egingo da. Berri gehiago, Gazte Bulegoan.

#### ■ LEHIAKETAK

• Ikasketa-bidaien proiektu lehiaketa, Kutxak antolatuak, BBB, IEE, UBI, LHII, LOGSE batxillergo eta unibertsitate mailako ikasleei zuzendua. Epea: martxoak 7.

Berri gehiagorako:  
GAZTE ZERBITZUA  
☎ 77 00 65



■ **Horoskopoa**

- **Aries** Oraindik ez duzula Haratuzteetako mozorroa prestatu?
- **Taurus** Harrizko horma bat baino gogorragoa duzu burua.
- **Gemini** Gaur erosi dituzu lorak? San Valentin joan den astean izan zen!
- **Cancer** Sirokoa baino zoroago ibiliko zara asteburu honetan.
- **Leo** Belarri bat bestea baino gehiago haziko zaizu.
- **Virgo** Aurpegi horrekin ez duzu mozorrorren beharrik Haratuzteetan.
- **Libra** Amets liluragarrietan galduko zara, baina gogoratu ametsak direla...
- **Scorpio** Bart, bart, bart, bart parrandan ibili..., bi, bi, bi, ez naiz ondo ibili...
- **Sagittarius** Aliziaz lurralde zoragarrian sartuko zara zulo batean zehar.
- **Capricorn** Elurrak islatutako argiak aurpegia gorrituko dizu.
- **Aquarius** Sugea liluratuko duzu zeure txirularen soinuarekin.
- **Piscis** Kontuz sardinaren erreketan, ez zaitez sutara gehiegi hurbil.

■ **Hitz gurutzatuak**


1	2	3	4	5	6	7
8				9		
		10				
11	12		13			
14		15			16	
17				18		
19		20				

JUAN BAUTISTA AGORRIA

**Horizontalak** 1. Maalako Errabalean dagoen taberna. 6. (Ald.) Burgosko ibilgailue-tan. 8. Ekaitz. 10. Bizkaiko mendiak, Galdames eta Trapaga artean. 11. Emakumearen sexu-atalen kanpokaldeko irekidura. 13. Dualismoa duena. 14. Zenbait animalien gorputza biltzen duen azala. 16. Molibdenoa. 17. Bizkaiko udalerria, Nerbioi ertzean. 18. Balio Erantsi Gordina. 19. Eguzkiaren jainko egiptoarra. 20. Airean ur-tanta guztiz txikiz osatutako esekidura, ikusmena eragozten duena.

**Bertikalak** 1. Burdina duen ura. 2. Txakur. 3. Izadi. 4. Mitra. 5. (Ald.) Italiako hiria, izen bereko probintziako hiriburua. 6. Usnatzeko ahalmen. 7. Biologian aditua. 9. Alfabeto grekoko hemeretzigarren letra. 12. Utzi. 15. Pertsona batek, giza talde batean, betetzen duen eginkuzuna. 18. Pare bat.

**Horizontalak:** 1. Monte, 6. (Ald.) Bu, 8. Eraunsi, 10. Triano, 11. Alu, 13. Dual, 14. Larri, 16. Mo, 17. Ugo, 18. BEG, 19. Ra, 20. Laino.  
**Bertikalak:** 1. Metalur, 2. Or, 3. Natura, 4. Tur, 5. (Ald.) Udine, 6. Usnamen, 7. Biologo, 9. Tau, 12. Laga, 15. Rol, 18. Bi.



**Aldibi Autoak, S.A**  
 Zigorrola, 1  
 ARRASATE  
 Tel.: 71 20 02  
 Faxa: 79 65 65

**Etokizunari aurea hartuz!**



Volvo

Mondrakar, S.L.



Mercedes

Izar Autoak, S.L.



Hyundai

Musakola Autoak, S.L.



Chrysler

Musakola Autoak, S.L.



Mazda

Musakola Autoak, S.L.



Nissan

Aldibi Autoak, S.A



# ATBren zortzigarren urtemugan

Jon Aldanondo: "Hobekuntza nabarmena izan dugu aurten"

Otsailaren hamahiruan zortzi urte bete zituen ATBk. Urtean behin-betiko egoitza lortzea izan du kezka handia. Orain, Otalora kaleko estudio berrian erabat finkatuta, etorkizunari begira jartzeko garaia da. Urtebetean gure etxeetan ehundik gora kanal jasotzeko aukera etorri zaigu. Uhinen itsaso honetan, ATBk txalupa sendoa behar du, badaezpada.

**- Zortzigarren urtemugan, zer erronkari begira dago ATB?**

- Aurrera begira, hiru erronka nagusi daude: herri telebistei buruzko legeak ekarriko duena, aurten ezer ekartzen badu, gainera etorri zaigun aro digitalari erantzun beharra, eta programazioa hazteko aukera. Honez gain, uste dut ATBri bai-larari begira lanean hasteko garaia iritsi zaiola.

**- Ezer aurreratu da aurten**

**herri telebistei buruzko legearen auzian?**

- Espainian onartuta dago, baina Eusko Jaurlaritzak berea noiz argitaratuko zain gaude oraindik. Aurten kaleratuko balitz, legeari egokitzeko hainbat moldakuntza egin beharko genuke, baina oraindik ez dago ezer zehatzik. Ez dakigu zer ekarriko digun.

**- Aro digitalak lekurik izan dezake herri telebista batean?**

- Izan behar du. Teknologia-ri esker, ikuslea kalitate maila gero eta handiagoetara ari da ohitzen. Ez da nahikoa gu herriko berriak kontatzen dituen telebista bakarra izatea, ezin gara geldirik geratu. Ikusleari beste kateen bidez jasotzen ohituta dagoen kalitate maila eman behar diogu. Alde horretatik material teknikoak berritzen joan beharra daukagu.



Jon Aldanondo, ATBko arduraduna.

Orain lau urte Betacam sistamarako aldaketa egin genuen, iraultza izan zen orduan, baina gaur egun zaharkituta geratu zaigu; hogeiterturako izan zitekeela uste zue-na, oker zebilen. Oztoppa dirua da. Adorea beharko dugu izan.

Bestalde, ez da kalitate

kontua bakarrik. Teknologia-ki lana erraztuko du, eta beraz, gauza gehiago egin ahal izango da denbora laburra. Eskulanean ere asko aurrera daiteke, produkzioa handitu, eta gaur egun eskaini ezin ditugunak eskura izan ditzakegu: unitate mugikorrak, zuzeneko bategiteak, infografia, tele-testua...

**- Programazioari dagokionez, zer?**

- Emititzen dugun guztia geuk egin dela kontuan izanda, emititzen duguna ez da gutxi. Halere, haztea da etengabeko erronka. Ikusleari gauza gehiago eskaintzea, eta daukaguna hobetzea. Kalitateari dagokionez, hobekuntza nabarmena izan dugu aurten, dekoratuetan, saioen estiloan... Jende ona pasatu da hemendik. Daukagunari eutsi egin behar diogu, eta hobetu. Beti dago zertan hobetu.

## ■ ATBko programazioa

LARUNBATA, 21	ASTELEHENA, 23	ASTEARTEA, 24	ASTEAZKENA, 25	OSTEGUNA, 26	OSTIRALA, 27
Astean zehar eskainitako saioarik interesgarrien errepika.	13:30 <b>Astebete.</b> (Errepika)	13:30 <b>Mondrasport.</b> (Errepika)	13:30 <b>Kaleidoskopioa.</b> (Errepika)	13:30 <b>Tertulixan.</b> (Errepika)	13:30 <b>Kukaratxa Motel.</b> (Errepika)
13:30 <b>Kukaratxa Motel.</b> (Errepika)	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak.</b>	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak.</b>	20:00/20:30 <b>Berriak.</b>	19:15 <b>Kukaratxa Motel.</b>	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak.</b>
14:15 <b>Astebete</b>	21:30 <b>Mondrasport.</b> <i>Itxaro Zubillaga.</i> Asteburuko kirol jardueraren errepaso zabala, Zaldibarko futbito txapelketa, gonbidatuak eta lehiaketa astelehenero.	21:30 <b>Kaleidoskopioa.</b> <i>Unai Iparragirre</i> eta <i>Aitziber Langaran.</i> Gonbidatuak: Idoia Uranga eta Anabel Arraiza, <i>Goenkaleko</i> aktoreak. Honez gain Txino dantzaren inguruko erreportaia.	21:00 <b>Tertulixan.</b> <i>Iñaki Olaizola.</i> Iñakik eta bere gonbidatuak azken asteetako gertakariak izango dituzte aztergai.	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak.</b>	21:30 <b>Astebete.</b> Astean zehar jasotako berrien gainbegiratzea.
14:45 <b>Munduari Buel-taka.</b> Asier Elortza eta Lauri Azkargorta bergarrek, Ertamerikara egindako bidaiaren berri emango dute.				21:30 <b>Kukaratxa Motel.</b> <i>Betirtze Iñurritegi</i> eta <i>Alazne Ruiz de Munain.</i> Gaztetxoentzako lehiaketa.	





**E**rrepublika urteak ziren, 1933-34 ingurukoak. Mondra regionalean zebilen. Talde oso ona omen zuen. Athleticetik, adibidez, Angel Arregi Legarre eraman nahi izan zuen, baina hau gaisotu. Argazkia Maalako futbol

zelaian aterata dago, antza. Jokalariei dagokienez, denak ezagutu ditugu, baina ez dugu denen izen-abizenak lortu ahal izan. Barkatu, beraz, izena edo abizena falta dutenen familiartekoek. Zutik, ezkerretik hasita Aiala Mondrako zuzendaria, Angel Arregi Legarre, Ignazio Olazabal Kinke,

Pereira, Gomez, Gonzalez Txapas, Zabala Putxulu, Juanito Manuka, Santos Sologaistoa eta Urreta atezain gasteiztarra. Belauniko, Panadero, Langarika gasteiztarra, Sarazibar, Iarza, Pereira botikinarekin, Leandro Arrasate eta Jesus Amozarrain, Gerra Zibilean hilgo zena.

-----  
Berriemailea:  
Imanol Zeziaga Divino.  
Argazkilaria: Kruz (Irun).





**ARQUERO**  
**CONSTRULAN S.L.**



**ERAIKUNTZAK ETA INDUSKETAK**  
Basabe Poligonoa 4, EQ-11 • ARETXABALETA  
Telfax. 79 01 51 • Mugikorra (908) 77 28 67 • Partikularra 79 74 26

**BOLIÑETE**  
**OILASKO ERRETEGIA**  
Bertan jateko edo eramateko.  
Zarugalde, 24 • ARRASATE • Tel.: 79 39 91



**LOGOPEDIA**  
**ZENTRUA**  
**ARRASATE**

Logopedia eta psikologia tratamendu kliniko eta hezitzaileak haur eta helduentzako.

Erdiko kale, 37 - behea  
Tel.: 79 79 46 • ARRASATE



*Edo lanez aldatzen duzu,  
edo umezain bat hartu,  
edo familia osoa zoratu,...  
edo bestela geurera etorri:*

# IKAS 10


**IKAS 10, LA MERCED IKASTETXEAK**, zerbitzuen kontzeptu berri bati jarri dion izena da. Zerbitzu hauek zuei hobetoen datorkizuen modura uzta daitezke: **ORDUTEGI ZALUA**, goizeko **07:30etatik arratsaldeko 18:00ak arte**, zuentzat kosturik gabekoa. **HAURTZAINDEGIA**, 2 urtetik 6 urtera arte. **AUTOBUS** zerbitzua Eskoriatzatik. **JANGELA** edo jangela librea, eta abar. Irakaskuntza kalitaterik hoberena, zerbitzu zabal eta onenekin, eta hori guztia **preziorik hoberenean**, zure seme-alaben heziketak ez ditzan hankaz gora jarri, ez zuen elkar bizitza, ezta zuen aurrekontua ere. Dei iezaguzu, galde ezazu eta aukerarik hoberena hartu.

**Zuen beharretara moldatuko gara eta.**


*Haur hezkuntza  
Lehen hezkuntza • DBH  
2 urtetik 16 urtera*

## Haurtzaindegia

2 urtetik 6 urtera



07:30etatik 18:00ra



*la merced*  
IKASTETXEA

ARRASATE

(943) 79 27 73

La Merced-ek  
**GEHIAGO**  
eskaintzen dizu.

La Merced Ikastetxea (Arrasate - Eibar - Gasteluz - Leioa - Zumarraga)



Bihotzak  
gida zaitzala.



Berria  
Opel Corsa zure bizitzako motorea

Zure bizitzako motorea martxan jarri da.  
Motore belaunaldi berri bat. Potentzia gehiagoz. Kontsumo gutxiagoz.  
Eta txasis berri bat. Gehiago gozatzeko. Segurtasun handiagoz.

Jarriozu motore berri bat zure bizitzari, eta eraman zaitzala

**OPEL**   
ALEMANIAR INJENERUTZA ZURE

**TALLERES OLA**

Olabarrena auzoa, z/g. Tel.: 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN

**TAKOLO AUTOAK, S.L.**

Araba Etorbidea, 3.( Escatu pabilioia). Tel.: 79 05 86

OPEL KONTSEZIONARI OFIZIALAK, HOBEAK.